

PROPOSAMEN PERTSONALA EUSKAL HERRIRAKO ESTRATEGIAZ ETA EGINTZA-PLANAZ

Félix Rodrigo Mora

Euskal erriko kondizioen bilakaera ikusirik, une egoki da estrategia global baterantz jauzi egin dadin, eta horretan, besteak beste, egon beharko lukete emantzipazio integralerako (oso-beterako) bideak. Orain da abagunea, zeren bada hutsune bat bete beharreko dena. Euskal jendeak bizi duen egoeran, hots, nahasmena, depresio kolektiboa eta desmobilizazioa; herritarrek behar-beharrezko dute: ilusionatuko dituen egitasmo edo proiektu bat, zeinaren bidez bideratu eta hedatu litezkeen energia kolektiboak eta norbanakoenak. Horren haritik, testu honen azken atalean proposamen bat egiten da, jardukizun eta eginkizunei buruzkoa

Halako gaiei hainbat urtez begiratu eta EHra hainbat bisitaldi (gehienetan gonbidaturik) egin ostean, EHn ongi hartu nautenengako nire afektua agertzearen, pentsatzen dut obligatua naizela proposamen bat aurkeztera.

Guztiarekin ere, beharrezko zait –aldez aurretik– azalpen batzuk adieraztea

Aspaldikoa da Euskal Herriarengako nire interesa. Besteak beste, Egin egunkariaren kolaboratzaile izan nintzen, haren azken aldietan; izan ere, hainbat iritzi-artikulu argitaratu bainituen bertan, eta baita "Punto y Hora de Euskal Herria" aldizkarian eta beste agerkari batzuetan ere. Iritzi-artikulu horietako batzuetan agertzen nuen –betiere areriotasunik gabe– eze EAMk zeukan estrategia ez zela errealista. Urteak garrenean, berretsi egin da nire ikuspegi-analisia, jazoerek erakusten dutenez. Alabaina, garai hartan ez nuen izan inoren aldekotasunik gai horretaz.

2004. urtetik aurrera heldu nion berriro harreman horri, AHTren aurkako Asanbladaren eskutik, hainbat hitzaldi emanez^k eta hainbat ekintzetan (Lezo, etab.) parte hartuz, Ludd-en Lagunak elkarteko kide nintzenela. 2005. urtean, Nabarralderen Haria aldizkariak "Herria eta Karlismoa. Argipen entsegua" argitaratu zidan, ondoren "Natura, baserritasuna eta zibilizazioa" liburuari gehitu niona. Bere VI. atala, "Udalbatza irekia eta baserri-mundua" titulua daramana, Euskal Herria eta batzarrea gogoan nituela izan zen pentsatua eta idatzia, berau izanik liburuaren osagai funtsezkoena, eta, era berean, zentzua ematen diona. Ezin izango nukeen berau idatzi Arabako Udalbatza Elkartearen laguntzarik gabe, zeinarekin eztabaida emankorra izan nuen Urbinan (Araba), 2007ko urtarrilean

^k Haietako bat Donostian egin nuen, 2009-03-23an, eta bere edukia hauxe izan zen "**Crisis y utopía en el siglo XXI**", gerora liburu baten testu bihurtuko zena.

2011ko urri bigarrenekoan, Usurbilen Auzolanaren aldeko Lehen Topaketa burutu zen, eta Jasone Miltxeltoarena andereak hartarako gonbitea egin zidalarik, Euskal Herriarenganako nire hartu-eman beste egin-aldi baten sartu zen. Nik neuk ez nuen ezagutzen hura, berak, ordea, bai "**Naturaleza, ruralidad y civilización**" (Natura, Baserreitasuna eta Zibilizazioa) nire lana zena. Harrezkero lotua eta atxikia izan nintzen mugimendu harekiko; eta, halatan, Altsasuko jardunaldietan parte hartu nuen, hizlari gisa, non jorratu bainuen "Burujaetasun Politikoa eta Batzarra". Beste hitzaldi batzuk ere eman nituen, Gernikan. Urte batzuk garrenean, 2016ko maiatzean, Zuzenbide Piriniarrari buruzko Topaketa egin zen, eta nik hartan egin hitzaldia Nabarralde y Martin Ttipia elkarteek eman zuten argitara, 2017ko ekainean. Horiez gain, Euskararen Jatorria delakoaren inguruko egintza batzuetan ere izan nintzen, partikulariki Irurtzunen, hizkuntzari buruzko jardunaldi baten; 2017ko irailean, Elgoibarreko jardunaldian. Lehenagotik, 2016ko apirilean argitaratu zen nire beste azterlan bat, Espainiako II. Errepublikari buruzkoa, zeinaren azken kapitulua baita iragan mendeko 3. hamarkadako euskal gizarteaz. Bestalde, arte erromaniko herrikoari buruzko liburu nireak (2013an argitaratua) azalean dago Tuestako tenplua (Araba), XIII. mendean azkenerantz eraikia. Berebat, nire blogean badut gogoetarik Artaizko San Martineko (NA; 1140) tenpluaz.

Ni neu gaztelau izanik, norbaitek galde lezake: zergatik EHrekiko nire ardura-arretak? Batetik, Gaztela jatorriz EH delako, Kantabria zaharraren oinordeko izateaz batean; hortaz, hari horretako nire ibilbidean "Aitaren Etxera" itzuli baino ez naiz egin. Beste alde batetik, askatasun politikotik hara bere burua antolatzeari dagokionez, EHk oraindik badauzka gizarteko aztarna behinenak eta esanguratsuenak, esan nahi baita estatu baten gertatzen ez direnak; batez ere, Vascongadas delakoan. Nafarroan ere bai, zeren bertan eusten baitzaio gehienik eta hobekien herri-jabegori; oraindik ere formalki lurraren % 43a da halako.

Eta guzti hori hala izan dadin, bada ziorik; badira bi nabarmen direnak, ene ustez: 1.a) Goi-Erdiaroan, V. mendean jazotako iraultzaren eraginak, beste inon baino hobeto antzematen zaienak. Izan ere, hura EHren inguruan agitu baitzen; 2.a) XX. mendeak aurrera egin arte, euskara ez dela izan sekula estatu-hizkuntza, hau da, herritarren euren hizkuntza legetxe iraun duela; eta horren ondorioz, munduaz kontzepzio burujabeak ere iraun egin duela; esate baterako, Gaztelan baino hobekiago, non gaztelania egin baitzen estatu-hizkuntza XIII. mendetik aitzina. Ofizialtasun horrek ekarri zuen eze, Estatuaren ideia disolbatzaile-makurrak areago eta sakonago sar zitezen komunitate herrikoietan, herria usteldu eta akulturlizatuaz. Zalantzarik gabe, zoritxarrez EH ere egun kulturaz bestelakotua da, baina Gaztela baino askoz ere gutxiago.

Nire proposamenarekin bat eginez, -Euskal Herriari dagokionez- euskaldunen kosmobisio integrala, ezen ez kanpotiko ideak, izan daitezen oinarri egitasmo eta proiektu politiko, ekonomiko eta

kultural iraultzailerako, bide-erakusletzat hartzen dut Artaizeko San Martin tenpluko buru trifronte ederra. Izan ere, buru zizelkatu horretan adierazten eta errepresentatzen baitira iragana, oraina eta etorkizuna batasun holistikoa, agerraraziz eze jakintza osotasun bat dela, hots, izan zena, egun dena eta gerorako hautatzen dena.

Baina, zer dela-eta nire interesa euskal iraganaz? Norbaitek uste baleza eragile dela historia oso gogoko dudala edota etnografiaren irrika naizela edo museistikazale naizela; bada, oker dabil. 2017-09-23an, Elgoibarren egin nuen hitzaldiaren titulua izan zen: "*Euskal Herria en dos momentos: la revolución bagauda y el siglo XXI*". Dena ere orain dela 20 urte hasi zen, orduantxe ondorioztatu bainuen eze, hemeretzigarren mendeko ideologoa obreristak -batez ere marxismoa- ez zirela egoki iraultza soziala artezteko, kapitalismoa kitatzeko eta beste era bateko gizarte eraikitzeke. Guzti hori gogotan izanik, eraldaketa sozialak egiteko eredu bila iraganean arakatu nuen; betiere, hemeretzigarren mendeko obrerismoen porrotek - proposamen eraldatzaileak ez zutela-eta- ez zezaten eragin jendea kolektiboki integratzea menderatze-sisteman.

Gehienbat, herri-jabegoan eta batzarrean oinarrituriko ordena - autogestionarioa eta politikoki libre zena- nahi nuen ikasi. Zehazki, gizaldietan zehar irauteaz gain eragingarria izan zena, ulertzeko nola lortu zuen hori, hau da, zer mundu-ikuskerak, axiologia, printzipio eta baloreren bitartez, hain zuzen. Neure buruari itauntzen nion: batzarre irekia politika-antolaketa egokia al liteke egun bezalako gizarte bat egituratzeko, askatasun politikoaren bidez?; ba ote liteke -herri-jabegoaren (komunalaren) bidez- komunal egitea finantza-, industria- eta zerbitzu-enpresa multinazional egungoa?; bideratu ote lezake auzolanak atzentzea soldatapeko lana, erdi morrontzakoa dena?; bideratu eta eskain ote ditzake ohiturazko zuzenbideak - zuzenbide piriniarretik eratorriak- arau juridiko egokiak egungo herritarrentzat, hartarako ezeztatuaz Estatuaren egungo zuzenbide positiboa?; batzarre irekiaren mendeko miliziek egin ote ditzakete herritarrentzat polizien eta gudalosteen ordezkoak?, egingarri ote hori?

Iraultza guztiek bilatzen dituzte erreferentziak iraganean; alabaina, tamalez Frantziako Iraultza izan ohi da -lehen eta orain- argudio giro progresistetan. Edo, osterantzean, iraultza errusiarra, haren klona dena (1917); guztiarekin ere, guztizko kapitalista eta estatuzalea. Frantziakoa iraultza barik kontrakoa izan zen, eta horrez gain, euskaldunen genozidioa burutu zuena Iparraldean. Guzti hori are gordinago ikusten da egun, zeren deseginez baitoa II. Mundu Gerratetik aitzina Mendebaldean menderatu duen progresismoa. Halaber gertatzen zaio horren "semekillo matxino" den ezkertiaratasunari, zeina egun baita Europako erdi-mailako klaseen politika, statu quo-an sartu eta bertan hazi zein gizentzeko.

"Politikari buruzko Teoria Orokorra" obran, Norberto Bobbio-k, azken mendeko politologo burutsuena bera, bereiztu egiten ditu diktadura eta demokrazia, eta azken horretan bi eratakoak ikusten ditu: batetik erregimen parlamentarioa, demokraziatik zipitzik ez duena, eta bestetik Atanasen gauzatu zena, ustez batzarren gobernu zena, baina izatez autogobernu faltsu eta aizun. Bobbio-ri otu ere ez zitzaion egin eze, hemendik hurbil bazela herri-batzarreen bidez autogobernatu zen gizarte bat, zeren orain dela 2.500 urteko Greziakoa ez baitzen halako. Halako gizartearen aztarnak egun ere agerikoak dira batzarreari erreparatu ezker, zeina -degradaturik bada ere- oraindik ere errealitate den.

Penintsulako hainbat herritan izan zen batzarreen bidezko gobernu herrikoaren sistema. Gaztelan, Comunidades de Villa y Tierra delakoa, hiribildu bat buru zena eta haren inguruan dozena herrixka batzuk biltzen zituena, behetik gorako gobernu amankomunarekin, eta subiranotasun herrikoaren bi mailarekin: bata, lokala edo udalarena, eta bestea, eskualdekoa. Baliteke, hasiera baten, hirugarren bat izatea, Gaztela guztirako zena, Gaztelako Gorteetan gauzatu, baina guzti horretaz ez da agiri fidagarririk, ez baita ezer kontserbatu. Galizian, Concello Aberto delakoa esanguratsua da oso, neuk ere nazio horri buruzko neure liburuan adierazten dudan legez, baina ez dago ikuspegi globalik Galiziar herri osoari buruzkoa dena, egun ez baita horri buruzko arrastorik, nik dakidalarik. Katalunian ere antzera, nahiz eta Kataluniako historia ez dudan horrenbeste ezagutzen. Euskal Herrian gordetzen dira hobekien iragan asanbleario, iraultzaile eta herrikoiazen aztarna eta arrastoak; politikari dagokionez¹ Euskal Autonomia Erkidegoan Nafarroan baino gehiago. Agerikoak dira, baina denboraren joanaren eta estatu-aparatuaren presioaren ondorioz desitxuraturik agertzen dira, herriaren subiranotasuneko hiru mailetan: tokikoa, eskualdekoa eta lurraldekoa, alabaina laugarren hura falta da, zeinetan estaturik gabeko gobernu-sistema baten batuko bailitzateke Euskal Herri osoa, eta nahitaez Goi-Erdiaroan (V.tik X.era, gutxi-gorabehera) izango zena. Gutxi-gorabeheratasun horren zio da: dokumentazio-iturriak eskasak

¹ Egitate horretaz, bide batez, esan behar da eze sorgunea Euskal Herriko iraultza bagaudan izan zuela. Baina, iraultza horrek ezarritako eredu beste herri batzuetara hedatu zen, eta herriok hura euren baitako egin. Nafarroan eredu hori apalduagoa izatearen kasua, nire ustez, hauxe da: 1512. urtea baino lehenagotik Estatu Nafarrak izan zuen indarra; izan ere, Behe-Erdiaroan estatu horrek gogorki erreprimitu baitzuen herria, eta geroztiko mendeetan, halaber, Estatu Nafarra eta Gaztelako Koroa batzetik atera zen botereak. Gauza jakina da eze, XVIII. endean Nafarroako gorteek Batzarrearen aurkako legeak egin zituztela. Era berean, karlismoari zitzaion beldurra zela-eta, komunala pribatizatzeko araudia, XIX. mnedean promulgatua, "kontuz" aplikatu zen Nafarroan, hortik hara esplikatzen da komunala oraindik ere handia izatea, eta horrek berretsi egiten du gertakari karlistaren gaineko nire tesia. Nafarroako Estatua, askok diotenaren kontra, ez da inondik inora izan Euskal estatua, Estatu ez-euskalduna izan da, aintieuskalduna. Eta hori hala da, zeren euskotasunaren izaitte konkretuaren muina errotik baita herrikoia eta iraultzaile, iraultza handi baten sormena denez, zehazki, 450. urtearen inguruko urteetako iraultza bagaudarena estatua euskaldunen izaitetik eta idiosinkraziatik aparte dago; hori dela-eta esplika daiteke euskaldunen gizarte zibilia horren indartsu izatea, eta bai euskaldunak bere baitan kemen eta nortasun beregain bereziak izatea ere. Horren frogetariko bat da hauxe da: orain dela gutxi arte euskara ez da bihurtu estatu-hizkuntza, hain justu ere Vascongadetarako 1979ko arekin eta Nafarrorako antzeko legeriaz; gertakari horrek sortu beharko luke kezakizunik.

izatea; zirkunstantzia hori dela-eta aldi eta denborei buruzko gorabeherak zail da zehazten, nahiz eta horrek ez bihurtu zalantzazko gure tesiaren muina.

2010. urtean, "**La democracia y el triunfo del Estado**" delako nire liburuan, herriaren autogobernuko erabide bat proposatzen eta deskribatzen dut. Eta bertan zehazten dut behar duela: batzarre burujabeen sare baten oinarrituriko ordena juridiko-politiko bat, zeinetan behetik gora egiten den, hau da, tokikotik edo udaletik herrialdekora, kasuan kasukora. Horretarako gogotan izan nuen euskal sistema, partikularki Bizkaikoa eta Arabakoa, hobekien ezagutzen baititut, nahiz eta ez izan dudarik Gipuzkoakoak hala zirelakoaz. Aipatu liburuan ez ditut aipatzen lurralde horiek (hartan nago behintzat), zeren sistema hori baliagarri baita Munduko herri ororentzat; izatez, da unibertsa eta zentzu komunean oinarriturikoa. Zeren norbaitek –nahinongo delarik ere– hausnarketarik egin baleza ordea politiko libre batez, pentsatu beharko luke euskal sistemaren antzeko behar duela. Partikularki Bizkaikoa, bere arbolarekin eta bere sistema politiko-juridikoarekin, ederra eta perfektua dena, baldin eta bigarren mailako zerei barik sakonekoei erreparatzen bazaie. Okiz gaindiko araubide politikoa zehaztasunez behar da aztertu eta estudiatu, etorkizunerako erreferentzia egitekotan; baina horretarako bazter utzi behar dira: jaunen aparatuek eta geroago parlamentarismoak ekarritako eranskin negatiboak, zeintzu jatorrizko ordena politikoaren gainean ezarriak diren.

Honaino esandakoa kontuan izanik, uste dut agertu dudala eze historia buruzko nire estudioek dutela xedetzat gehienbat etorkizuna, ezen ez iragana, hau da, egiteko dagoen iraultza herrikoa, ezen ez iraganean izandakoa goxoki gogoratzea (duda barik ederra dena, baina horixe: oroitzapena). Gaur egun, uste dut eze analisi historikoaz nik egin beharreko ekarpena amaitua dela, zeren nire ahalegina ipintzen baitut orainaldian eta etorkizunean. Bestalde, jakinik Gaztela dagoela desmobilizazioak jota eta makalik, behar dut esan, esperantza apur batez, eze euskal emantzipazio-ahaleginak –eredu izanik– azkortuko dituela gaztelauak – berriro diot: esperantza apur bat, ez sobera baina.

Zeri egin behar diogun aurre, globalizazioa edo mundualizazioa

1986. urteaz geroztik Europar Batasunaren barruan dago Espainia, hura osatzen baitute 28 estatuk Alemaniaren nagusitasunpean, ingelesa (ezen ez alemana!) izanik lan-hizkuntza edo hizkuntza ofiziala, hau da, Estatu/estatuen erregimen tiranikoarena. Espainiako Estatua ez da Alemaniaren morroi baizen. Europako estatu horiek barru-barrutik dira lotuak espresa multinazional eskergari, eta bai megabotereko egitura politiko eta ekonomiko denari ere, eta hori, izatez, da Europako mundualizazio-eragilea; hortaz, Euskal Herrikoa. Gaur egun abiarazten ari dira EBko Segurtasun eta Defentsarako Politika Komuna, eta horrek haritik urte gutxi barru sortuko da europar armada, 1,8 milioi soldadu izango dituen, NATO bigarren mailan paratuko duena. Bide batez esan behar da eze, halako armadak beharrezko duela hizkuntza bateratua, ingelesa nahitaez, eta hori jada agerian da

Espainiako armadan, zeinetan ingelesa erabiltzen baita maniobra eta guduko egoeretan aginduak formulatzeko.

Inguruabar horietan, Europa ingeles endekatuaren inbasioa jasaten ari da; izan ere, berbeta horixe izango baita ofizial eta obligaziozko bai Europar Estaturentzat eta bai "nazio europar" guztiarentzat ere. Eta horren haritik egoki da gogoratzea eze, XIX. mendeko espainiar militarismo liberalaren gorakadak ekarri zuela gizonezko euskaldunek gaztelera jakin beharra, hala espainiar armada fidagarri, bateratu eta funtzionala izan zedin. Hartarako, eskola publikoa (estatala) izan zen lanabes eta bitarteko. Antzinatean ere, latinizatzea beharrezkoa izan zen erantzuteko erromatar aparatu militarren beharkizun-premiei. Beraz, erakundeetan aginpidea dutenentzako ez dira baliagarri eta gainera enbarazu dira euskara ez eze, gaztelania ere.

Beraz, Estatu-nazioari, hots, nazio bakoitzeko estatu bakarrari dagokionez, baten batzuk pentsatzen badute egungo errealitateaz irizpide dezimononikoez; bada, oker dabilta, zeren egun abian direnak baitira nazioz gaindiko forma-egiturak, zeintzu baitira aginpide eta nagusigo eskergako guneak, herrialdeen eta nazioen gaineratik ere badirenak. European bada superpotentzia eskergea bat: EB, batez ere Txina eta Errusia superpotentzien aitzia lehiatzeko dena, eta badituena, batetik, aliatu mendekoak, Islama da horietako bat, eta, bestetik, itun korapilatsu bat EBBekin.

Eraikitzen ari diren "nazio europarrean" ez da lekurik aniztasunarentzat, kulturei, hizkuntzei zein nortasunei dagokienez. Xedea da Europa homoginoa izan dadin, eta hori, izatez, da "nazio espainiarra" eraikitzekeo prozesuaren antzekoa (deuseztatzaileagoa baina!), 1812ko Konstituzioarekin eta geroztiko klonekin gauzatu zena, indarra erabiliz eta zenbait lurraldetako (hamabi baino gehiagoko) lehendiko erakunde politiko zelanbait burujabeen gainean -Gaztela eta Aragoiko koroaren menpekoak eurak-. Esate baterako, Nafarroan, non 1828an azkenekoz batzartu ziren gorteak. Halaber, abian da "nazionalismo europarra" eraikitzearena, zeina baita nazionalismo dezimononikoak baino hagitzez txarragoa, zeren funtsean baita akulturatzaile eta kaltegarri; izan ere, oinarritzen da-eta aurretiazko nazionalismoak eraistean, baina ezertaz ordeztu gabe, betiere "Europa batuaz" hitz hutsalak eta zehazkabeak erabiliaz. Guztiarekin ere, bertan ez da lekurik Grezia eta Erromatikiko europar kultura erudituentzat, ezta -inondik inora- herrien kultura herrikoientzat ere. Europa hori da: azken modernitateko izaki ezereztuentzako.

Delako "nazio europarra" "nazio espainiarra" baino kaltegarriagoa izaten ari da eta izango da herri europarrentzat, zeren Europar Batasuna baino hagitzez indartsuagoa baita finantzei, teknologiarri, funtzionario-aparatuari, aparatu-akademikoari, hedabideei eta aparatu militar-polizialari dagokienez. Eper ertainerako, guzti horretatik ondorioztatu behar da eze ezinbestean jazoko dela hizkuntza zein kulturen genozidioa, eta bai etnienena ere, zeren Europako biztanleriak ordeztuko baitira etorkin-masa trinkoez, zeintzu izango diren

arrotz Europako herriek dituzten ezein mundu-ikuskeraz zein kulturarekiko. Erresistentziarako eta iraultza integralerako estrategiarik ez bada, Euskal Herriari datorkio giza-komunitate berezi izateari utzi beharra, halako izan bada ere milurtekoetan zehar.

Duela hainbat mendetik hona Espainiako eta Frantziako estatuen mende izan da Euskal Herria, baina bi haiek egun dira EBren barruko eta mendeko; izatez dira Alemaniaren boterepeko erakunde. Eta guzti hori garbi dakusagu, baldin eta erreparatzen badiegu Katalunian 2017ko udazkenean izandako jazoerei, zeren dagoeneko 28koen Europan ez baitago lekurik estatu berrientzat. Kapitalismo espainiarrak/europarrak (katalanik ez da, ezta euskaldunik) ebatzi handiz gaitzesten baitu operazio politiko oro, hots, independentzia lortzeko edo estatu propioa ezartzeko den oro, egiazkoa izan zein iruzurtia izan. Hortaz, kontuan izan ezkerreko egungo egiturek agertzen duten errealtatea; bada, Europako herri menderatuen askapenak behar dira gauzatu programa integral batean, zehazki, iraultza politiko, kultural, sozial eta ekonomikorako denean. Guzti horren ondorioztapena da eze –mendeko nazio horretan edo beste edozinetan– euren burua independentziazaletzat dutenek eusten badiote estatu bat eratu nahiari edo jarraitu nahi badute ugazaben klase berberarekin; bada, orduan, izatez bihurtzen dira: defendatu nahi duten kausarentzako etoi edo traidore. Horren adibide perfektua da Kataluniako ERC.

Guzti hori dela-eta herri europarrak deseginez doaz Estatuaren Europa deritzon horretan. Baina, aldi berean, aginpidedun eliteek bat egiten ari dira, klase bakar bat eratzeko, zeinak dominatuko baititu finantzak, enpresak eta estatuak. Gaurdaino izan dira: Europako herriak, eta Europa, haien batuketa zena. Eratuta eta agintean dagoen boterearen manamenduz, oraindik aurrera izango da Europa bat, baina ez herriena, ezpada eragabeko plebearena, zeina izanen baita: errorik gabekoa, akulturalizatua, berdintsua, beharginen jendetza otzana eta zitaldua. Azken baten, jendetza hori izango da: oinarri-oinarrizkoa jaso alde eguneko 10 orduz lan egiteko gertu dena, jendaila apaldua, agintzen duenak esandakoaren alde bozkatu duena, eta –txintik esan gabe– pagatuko dituen geroz eta handiagoak diren zergak. Guzti hori lortzearren honako hauek baliatuko dituzte: 1) herri europar guztiak errotik akulturalizatzea; hartarako, ahazturaziz eta gorrotaraziz bizimolde, mundu ikuskera eta kultura herrikoiak, batez ere, baina baita ere guzti horien ikuskera eruditoa, Greziatik eta Erromatik datorrena eta egun hilzorian dagoena; 2) ingelesa ezartzea hizkuntza/neohizkuntza unibertsaltzat; egiazki: ingeles murriztu-endekatua, soilik baliagarria dena gizatasun eskasekoek elkarrekin komunikatzeko^m; 3) ordezkapen etnikoa gauzatzea;

^m Bada liburu ziragarri bat, 1999an Arabako Foru Aldundiak argitaratua, titulutzat duena "Cómo hablar en español sin pensar en inglés. Ensayo tragicómico" eta Tandem kolektiboak idatzia dena. Penintsulako gaztelaniadunen hizkuntza-akulturalizazioaren aurka egiten du elegantziaz, ofiltasunez eta humore onez. Beharbada, gutxi barru idatziko da antzeko argudioak erabiliko

hartarako, natalitatea apalaraziz eta immigrazioa masiboak bultzatuaz, zeren kultura aniztasunak berekin bai baitakar akulturalizatzea; 3) eratzea botere-guneak: militar, politiko, polizial, akademiko eta ekonomikoak, gero eta indartsuagoak izango direnak, eta oinarritzen direnak produkziozko ekonomia nitolarritzen duen zergapetzean —urtez urte handiagoa denean—; 5) pertsona, autoeratua eta burujabetasunekoa denez, ezeztatzea, humanoide bihurtaraziz; hartarako, edeki egiten zaizkiolarik berez gizaki legetxe dituen dohainak, adimena, aukerarena, askatasunarekiko maitetasuna eta, batez ere, gizartekotasuna edo soziabilitatea.

Giza-esperientzietan, berbeta edo hizkuntzak garatzen ditu gehienik gizakietan: adimenerako eta elkarbizitzarako ahalmenak. Zio hori eta beste batzuk direla-eta, abian da hizkuntza europar oro deuseztatzearena. Izan ere, Europako Estatuaren statu hizkuntza ofizial denez, europar berrien hizkuntza bihurtzen ari da ingeles endekatua, eta belaunaldi bi edo hiru barru botereak gauzatu izango du honako hau: giza-azpitiko bat eratzea, zeina behar baitu bere helburu estrategikoa lortzeko, hau da, berriro ere munduko lehen potentzia izatea, II. Mundu Gerrateraino izan zen legez, zeren orain leku hori arrisku handitan baitakusa goraka doazen potentzien indarra dela-eta. Hizkuntza oro da baliabide komunikazioa eta mundu ikuskera gauzatzeko, baina ikuskera hori kentzen bazaio gizakiari, hizkuntza testuingururik gabe utziz gero; bada, komunikazioa soilik garatzen da, eta ezinezkoa izango da gizakiaren ahalmen gorenak garatzea. Eta baliabide horiekin —badira abian prozedura gehiago, azken buruko helburutan bat datozenak— sortzen ari dira giza-azpitikoak, baliagarriak direnak soldatapeko murrontzarako eta politikoki guztiz mendeko izateko, ezen ez beste ezertarako.

Halatan, bada, globalizazioaren aurkako erresistentziak behar du izan Europako herrietarik bakoitza honako hauek lortzen ahalegintzea: izaute berrestua, barnean bilatzea izaute berri baterako motibo-zioak, eta bertautitzea idiosinkrasia, printzipioak, bizimoldeak eta baloreak, XXI. menderako. Guzti horren bitartez, eta orduantxe soilikan Europako herriek bentzitu ahal izango dituzte Estatuaren Europa eta enpresa multinazional eskergak. Herrien Europa hori izanen da —premiatua eta asmoz— unibertsalista, hau da, gizateriari ekarkinik egingo diona, aparte izanik nazionalismo burges dezimononiko, abertxale eta xenofobotik.

Gazteriaren artean, mundializazioa sustatzen da utopia erakargarri gisa. Argudio gisa esaten da eze ingelesak eratsiko

dituena euskarari dagokionez. Globalizazioa neohizkuntza munduko hizkuntza eta kultura orori dakarkion arriskuaren aurrean kezka larririk sentitzen ez dutenek, ez dute ulertzen mundu mailan zer gertatzen den. Aipatu liburuan erretentzia bat agertzen da, globizazio-prozesuari aurka egin nahi diona; hau da, mundu mailako botere eskerga ikaragarriak —sekula izan ez diren bezalakoak— sortzearen aurka egin nahi da. Liburu horretan agertzen den “Mendekotasun kulturalaren” nozioak ondokoa salatzeke helburua du: mundu osoan zehar, milioika pertsonen gogoak medeko izatea ingeles endekatuko azpikulturarekiko; eta esan beharrekoa da eze, halako salaketak balio hadia duela egungo egoera nahastetsuan

dituela herrien eta pertsonen arteko traba-oztopoak, eta bideratuko duela elkar-aditze edo komunikazio globala. *Teknologiak ebatziko ei ditu arazo guztiak, eta sortuko aro berri bat, non izango ei diren: oparotasun materiala, bakea eta prosperitatea edo goraldia. Ongizatearen formula erabiliaz, Estatuak jendea zaindu eta artatuko ei du, eta, bestetik, enpresa berri handia izanen ei da leku erakargarria nork bere lan-ahalegina gauza dezan. Norbanako bakoitza komunikatu ahal izengo ei da planetako ororekin; lanari, emigratzeari eta turismoari dagokionez izango ei da hesi edo traba gabe mugitzerik. Iraganeko kultura herrikoiak eta burujabetasunez eraikiak, zelan eta atzerakoiak eta miseriazkoak diren, ordeztuko ei dira kultura-industriako eduki ideologikoez eta jakitate akademikoaz (jakitate horretarako helmena badute dagoeneko 35 urtetik beherakoetan herenak). Egoera hori delarik, esaten zaigu eze, gizateriaren aurrerabidea izango dela etengabea eta gero eta azkarragoa. Baina bidean geldituko ei dira: aldi bateko kulturak eta hizkuntzak, bizimolde zaharkituak, ustez kaltegarri ez eze, baztergarri ere badiren baloreak... Europa globalizatua, "nazio europarra", mende honetan eraiki behar ei da, hamarkada batzuetan hain zuzen ere.*

Globalizazioaren ahulguneak honako zazpi arlo hauek dira: a) agintzen duenaren eta egiten duenaren arteko amildegia handia da, oso; b) iraun dagian, egin behar den ahalegin ekonomikoari ezin zaio eutsi, zeren guztizko botere sistema eskerga denez artifiziala eta antinaturala baita; c) zelan eta gizakia degradatzen duen, hura ezereztu egiten du, eta ondorioz ia orotarako ezgauza, baita produkzio-lanerako ere; d) bizimodu eta lan globalizatuko baldintzek sortzen dituzten patologia fisiko eta psikikoak, asko eta ugari direnak, zeintzuek honako hauek dakartzaten: obesitatea, diabetesa, bakardatea, depresioa, alkoholismoa, eromena, etab., denak ere izanik kostu ekonomiko oso handiak dakartzatenak; e) hondamendi demografikoa, egun Europan agitzen dena eta laster mundu osoan; f) nekazaritzaren beheraldia, nekazaritzarako lurrak desegitea, edateko uraren eskasia, hirien degradazioa eta klima-aldaketa; g) txirotasun ekonomikoa: miserizko soldatak, enpresaren medeko morroi egitea, eta akabubako lanaldiak, dagoeneko gazteriak pairatzen dituenak. Esan daiteke giza-kondizio osoa (giza-naturaleza osoa) jarkitekotan dela, hain justu ere jainkoturik makurrak diren eliteen hiper-diktaduraren aurka; izan ere, eliteok baitaralbite globalizazioa.

Hortaz, Estatu/enpresa eskergako sistemaren globalizazio-fasearen aurkako oposizioak baditu egiazko aukerak –borroka eginez– arrakasta erdiesteko. Hartarako, behar da, batetik, analisisa egokia, eta, bestetik, estrategia egokia formulatzea. Nire iritziz, globalizazio kapitalistaren aurkako oposizioak ez du izan behar erromantikoa eta testimoniala, ezpada behar du izan arrakastaren bila dabilen egintzaren mailakoa, hau da, behar ditu ezereztu iraultzaren bidez: eraturiko boterearen munstrokeriazko proiektu estrategikoak.

Globalizazioari buruzko ideologiaren deribazioetarik bat da belaunaldien arteko haustura: 35 urtetik beherakoek onartu egiten dute hein handi baten, zeren besterik ez baitzaie irakasten, eta ez dute jarraitu nahi helduen bizimoldearekin, zeina eguneratu behar izaten baita belaunaldi bakoitzean. Hori jada Euskal Herrian ere jazotzen da, eta esan behar da, batetik, herriaren batasuna hautsi egin dela, eta, bestetik, masak akulturalizatzeko prozesu beldurgarria abian dela. Prozesu hori geldiarazten ez bada, euskaltasunezko oro atzenduko da bizimoldeari, mundu-ikuskerari, hizkuntzari eta idiosinkrasiari dagokienez, atzendu ere belaunaldi bitan edo gehien jota hirutan.

Globalizazioari buruzko ideologiaren ezaugarriak dira: agloaortua, akulturalizatua, teknologiaren aldele sutsua, otzana, diruaren poderioz bideratua, apala, despertsionalizatua, giza-azpitikoa, ekonomian oinarritua, hedonista edo atsegalea, errorik gabea, gezurteroa. Baina guzti horren aurrean da Europa globalizatuak gazteriari eskaintzen dion bizimodu-kondizioa: izaitze funtsezkoa birrintzen dion hezkuntza, akabubako lanaldiak edo enplegu finkoa izateko ezintasuna, adin berean gurasoen soldata erdiak, zabal-zabal dabilen txirotasuna, guraso izateko ezintasuna, bakardadea, anomia, gainzapalketa, zurien aurkako arrazismoa, hirietako bizimodu errorik gabea... azken baten, gogamen gaixotua gorputz gaixotuan, erakuntza are gaixotiagoan bizi dadin.

Horrez gain, esan behar dut globalizazio-prozesuak ez direla berriak historian. Erromak hala egin zuen Mediterraneoan zehar, helburu zituela: biztanleria homogeneousatua, lana egingo zioten behargin otzanak, araubide fiskal eragingarria eta aparatatu militar boteretsua. Inperio orok berdintsu jokatzen du.

Europa globalizatua gauzatu ahal dadin bada aurrebaldintza bat: herri europarrak akulturalizatu beharra. Egun horixe da hain justu ere euskal herriaren iraupenaren aurkako mehatxurik handiena, eta bai -kasuan kasuko berezitasunekin- Europako herri ororen etorkizunaren aurkakoa ere.^o Egoera hori bidegurutze bat da, non hartu daitekeen Euskal Herriaren heriotzerako bidea edo berbizkundera daroana. Dena izango da egiten denaren arabera.

Herri ingelsea ere arriskutan da, zeren hizkuntza bera ez baita inposatzen ari direna, ezpada haren aldra endekatu bat, neohizkuntza bat, zeina solikan da baliagarri gizartea hierarkizatzeko eta gizaki robotizatu-klonikoei elkarrekin ximpleki komunikatzeko. Benetako inglesa izatez bada (edo bazen) bere testuinguru kulturean eta bere axiologia-sistemarekin. Akulturalizazioak hondatu egiten ditu hizkuntzak, hain justu ere errealtatea gogamenez lantzeko, pertzepziarako eta komunikaziorako osagai direnez, betiere behar besteko konplexutasunez, zeina eskatzen baitu bizitzak, gizakiena izatekotan eta ez azpi-gizakiena. Beste berba batzuetan esanda, erreskadan fabrikatutako gizaki ezerezekoek ezin ditzakete eduki hizkuntzak, ezpada soilikan komunikazio landu gabeko eta baldarrerako lanabesak. Hori kontuan izaten ez bada, ez zaio antzematen objektibotasunez Europar Batasuneko proiektuaren funtsari, zeina egungo inperialismo alemanak artezten duen, hain justu ere Hitler-ek zituen helburu berberak beste metodo batzuekin lortzeko; azken baten, Europa menderaturik izatea osoro, hartarako bihurtuaz inperialismo teutoiaren neokolonia.

Motibo-sorta bi, egoera irauliz Euskal Herria bere izaitean irmotu dadin

Lehenengoa: esana dugunarekin bat, bere erakuntza politikoaren izaera naturala eta iraultzailea dela-eta –guk behintzat halakotzat dakusaguz ditugun ezagupenen arabera–, gehiago egitea egungo erregimen estatal-kapitalistari. Bestea: esperientzialki dena izan dadin, Europako herrietarik bakoitza egitea behar duena, bere burua aztertzeari eta berea dan onena berreskuratu, berformulatu eta gaurkotzeari dagokienez (txarrenaz ez, zeren erreala den orok bai baitu bitasun halako bat).

Halatan, bada, hedatu, finkatu, garatu eta zabalarazi egin behar dira: euskaldunen baloreak, printzipioak eta euskal bizimoldea eta mundu-ikuskerak, giza-izaitearen arlo guztiei dagokienez, eta, halaber, euskaldunen ordena axiologikoa; azken baten, izan dituzten eta oraindik dituzten ezaugarriak. Baina, batez ere, XXI. menderako berrasmatu behar da: izatez denetik izaitekora heltzeko. Betiere, jakinik eze, baloreen sistema sakondu eta arakatu ezkeror erdiesten dela gizatasunean egiazko eta unibertsal dena, zeina baita herri ororen muinean, bakoitzean bere jite bereziarekin.

Eginkizuna zaila eta korapilatsua da. Burutu dadin egin behar da analisisia bikoitza, parte biak elkar loturik, baina erregulartasunez bat egiten eta bereizten direnak. Alde batetik, gure garaia aztertzea, globalizazioaren problema muntako gisa kontsideratuaz, eta, bestetik, euskotasuna esperientzialki izandakoa eta egun dena; guzti horrek konponbidea ekarriko duelako itxaropenari bidea irekitzeko, egungo arazo konkretu handiei dagokienez. Metaanalisia bat ere egin behar da, horren bitartez muntako arlo zehatz bakoitzari dagokionez euskal esentzia zehazteko; eta haren emaitzak erabili erreferentzia eta bide-erakusle gisa, XXI. mendeko arazo erabakigarriak zelan tratatu jakiteko. Baliteke prozedura hori baligarri ez izatea arlo batzuetarako, alabaiana beti balia daiteke sormenezko hausnarketa, asmamenari eta berrikuntzari bide egin ezkeror.

Euskotasunari dagokina funtsezkoa bada, kanpotiko positiboak behar du izan osagarri, unibertsalismoa delarik oinarritzko ideologia. Munduko edozein lekutan positibo eta sormenezko dena euskal ondareari eranstea ezinbestekoa da, horretan ez da dudarik; baina, guztiarekin ere, egin behar da euskaldunen mundu-ikuskerari eta bizimoldeari gehitzekotan.

Funtsezko nozioetarik bat da iraultza eta tradizioa konbinatzearena. Hori egitean, batetik, bazter uzten da akulturazioa, eta, bestetik, izandakoan oinarri sendoa ipintzen zaio iraultzari ; eta, guztiarekin ere, ezinezko egiten da tradizioa erreakzio bihur dadin, hau da, pentsamolde zaharkillo, sarritan jazotzen den legetxe. Formulazio hori esangura unibertsalekoa da, zeren munduko herri ororentzat da baliagarri, eta errazagoa da gauza dadin euskaldunen lurraldean, zeren haien tradizioak baitira funtsezko iraultza herrikoi baten emaitza, zeina agitu baitzen V. mendean.

Euskal Herriaren akulturazioaren historiaz ekarkin bat

Giza-talde bat akulturalizatzea honako honexetan datza: bere kultura galaraztean eta bere izaitea largatzean, -betiere- bere buruarekiko gorrotoa eta lotsa bultzatuaz. Gaur egun, errudun sentiarazteko operazio baten mende dira Europako herri guztiak, goitik sustatuaz endofobia (norbere komunitatearekiko gorrotoa) haietariko bakoitzean, zeina Euskal Herrian ez baita antzematen Europako beste herri batzuetan bezainbeste, zerren haitean ezarian-ezarian eta etengabe atzenduz eta ahaztuz baitoa dagokien berezko izaitea, egunez egun eta arlorik arlo.

XI. mendean, Nafarroako Estatua eratzea izan zen, akulturalizazioari dagokionez, garrantzia handiko jazoera. Antso III.a, zeinak erakunde estatuala sortu zuen, ez zen oinarritu-abiaturik euskotasunetik, ezpada beste zer batetik, hau da, erromatartasunetik, zeina izan baitzen berrezarpen bat; zehazki, V. mendean bentsitu zen erregimen politiko-sozialarena (hasieran zuhur eta ahula, gero handituz joango zena); izan ere, erregimen horri gehiago egin baitzion Iraultza Bagaudak, V. mendean. Historiagile batzuek diote eze, Antso III.ak ez zuela erabili "*imperator totius Hispaniae*" izendapena; baina, erabiltzez, erabili zuen, areago dena: bere jarduera "imperator" batena izan zen, hau da, erromatartasuneko ideien aldele batena. Historia, errege eta guduen arabera, gogoko dutenek, zeintzuek ez baitute lekurik herri xeharentzako, hura "rey vascon" gisa izendatzen dute, baina hori anakronismoa ere bada, zerren mende hartan ez baitzen erabiltzen izendapen hori, "navarro" delakoaz ordeztu zen-eta. Izatez, Cluny-ren aldele sutsua izan zen, beraz Vaticanoarena eta kleroarena, eta hori dela-eta historian "errege europazale" kontsideratzen da. XI. mendean, jokabide hori izan zen: akulturalizazio-prozesu latz baten espresio. Prozesu hori dela-eta, gaztelauk erregeak ditugu, eta horrek "pozkarioz" betetzen gaitu, zerren haren seme Fernando I.ak, Gaztelako hasierako errege izan zenak, abiatu baitzuen lurralde haren gainbehera. VIII. mendean, Liebanako Beatoak, erregeak ditu tiraniaren eta makurkeria moralaren gorentzat. Bada, Antso III.ak erregez bete zuen Iberiako Penintsula.

Errege "vascon" delakoak Estatu bat sortu zuen, non -iraun zuen bederatzi mendeetan- ez baitzen sekula erabili euskara. Notatzekoa da eze gaitzetsi egin zuela garai hartako iruindar eta nafarretarik % 90aren hizkuntza. Eta eratu zuen ordena politikoak zeharo baztertu zuen "batzarrea", apurka apurka ordeztuaz erromatar Estatu piriniar edo bisigogo-erromatar batez, zeinak bi mendez edo luzaroago eraso baitzituen "vascoiak". **Zerren Erromatartasuna dionak dio: Estatu, eta Batzarrea dionak dio: Euskotasuna.** Estatu bat sortzeak ezinbestean egiten dio bide metatutako jabego pribatuari, zeinak baitakar komunalaren gainbeheraren hasiera, eta bai jabego familiarrarena ere, hain justu ere betidanik izan dena komunalarekin batean, zerren jabego komunitario eta kolektibistaren beste era bat baita. Euskal Herriaren sorreran, badira bi jabego-era: etxearena, eta komunalarena, zeina baitzen atxikia udalari, batzarr bidez eratzten ziren auzoen komunitateari.

Metatu gabeko jabego pribaturen era horietako bati zein besteari dagokionez behar da esan positiboak direla, zeren norbanakoaren burujabetasunaren adierazle baitira. Izan ere, euskal komunitate herrikoaren oinarria eta funtsa da gizaki erreala, ezen ez doktrinatu, eta horixe berori azaltzen dut Nabarralde elkarteak argitaratutako nire testuan, non hartarako iturriak aipatzen ditudan. Hala zen eta hala behar du izan, zeren euskal kulturak ematen baitio garrantzia erabakiorra gizakiari; izan ere, ez du sartzen, ez estutzen, ez tapatzen taldekeriazko ezin formatan, halakoek ezeztatu eta ukatu egiten dituzte-eta norbanakoaren balioa, libertatea, burujabetasuna eta duintasuna. Kolektibotasunaren agerpenek eta egintzek, izatekotan, behar dute izan gizakiari burujabetasun gorena emateko, ezen ez behertzeko, zirriborratzeko edo leuntzeko. Soilikan Estatuak ezeztatzen dute gizakia —edo ahalegintzen dira hartan—, hura sarraraziz talde totalizatzailean, goitik maneiaturako jendetzan, masa despertsionalizatuan, eraketa sozial despotikoan, zeina baita, izatez, artaldearena ^P

Estatua eta herria gauza bere direla uste izatea, eta horren haritik pentsatzea eze herri orok behar duela "babestuko" duen Estatua, ez da egiazkoa, ez baitator bat errealitatearekin. Estatuak, estatu guztiek, jarduten dute euren interesen alde; hartarako, herria menderatu, zapaldu, degradatu eta esplotatu behar badute ere, zeren herria bera hastio baitute. Hortaz, beti izaten da Herria/Estatua aurkakotasuna. Hori dela-eta Nafarroako Estatuak (aurretiaz Pamplonakoak) ukatu eta borrokatu egiten du euskotasunaren muina, zeina honako hauen inguruan biltzen baita: euskara, batzarrea, herri-jabegoa edo komunala, ohiturazko euskal zuzenbidea, auzolana, umeak hazteko elkar-laguntzako sistemak, elkarbizitzazko jaiaren nozioa, eta arteko harremanak gauzatzeko erak —Euskal Herrikoak bertakoak—, garrantzitsuenak aipatzekotan. 1512. urtean, Nafarroako nagusien klasea, estatu legez eraturik zena, irrikatzen zegoen Gaztelako Koroarekin akordio bat egiteko, Amerika konkistatzen eta arpilatzen parte

Pasadizo bat kontatuko dut. 2010ean, Galizian nire liburu bat aurkeztu nuen: galego berbaliatuan idatzitako "O atraso político do nacionalismo autonomista galego". Aurkezpen hura amaitu ostean, pertsona ezezagun bat hurbildu zitzaidan, eta esan zidan eze, liburu bat egiteko asmoak zerabiltzala, eta hura esplikatzen nahi zidala. Hasieran eszeptizismoz entzun nion, baina esan zidanak pozkarioz bete ninduen. Argudio hauek adierazi zizkidan: "orain arte, obreristek, marxistek eta sozialistek kontzeptu dute euren kolektibismoa, zeina izatez haxe baino ez baita: estatismoa edo estatu-kapitalismoa, norbanakoa ukatzeko edo ezereztatzeko dena. Ni neuz, zelan eta jaiotzen eta hazi naizen Galiziako alde urrun baten, ulertua dut zer den ohiturazko komunalismoa, eta bertan ez dira inondik inora ukatzen komunitate herrikoiko ezin burujabetasuna eta norbanakotasuna, ezpada errespetatu eta garatu egiten dira. Hortaz, liburu bat idatzi nahi dut guzti hori esplikatzen, Galizia tradizionalen antolaketa eta existentzia moduetatik har; izan ere, Galizia hori sustengatzen da produkzio-baliabideen herri-jabegoan eta concello aberto erakundeetan". Esan gabe doa eze, hori Euskal Herrian ere halaxe dela, eta lagun horrek liburu hori amaitu eta argitaratzen duenean munduak dardar egingo du, edo, ni neuz behintzat pozkarioz hasiko naiz jauzika, zeren baliotsua izatez gain, esanguratsua da-eta etorkizunerako. Pertsonaren autonomia, burujabetasuna eta libertatea osoro errespetatzen ez badira, gure garaiko arazo handientzako ez da inolako soluzio edo aterabiderik. Ohiturazko euskal erakuntza herrikoian, aipatu tasun horiek direla-eta dauka pertsona "batz bestekoak" kalitate handia; izan ere, askatasuna izan ezker batean erantzukizunarekin, eskubideekin eta betebeharrekin; bada, horixe da gizaki hobek, bikainak, erakitzen, baina, betiere, bitasun halako bat dutenak.

hartu ahal izateko, eta zio hori dela-eta izan zen nahiko ahula gaztelarren inbasioaren aurkako erresistentzia. Estatuak beti dihardu bere onaren peskizan, mendeko duen herriaren aurka eginez. Estatu oro da erromatartasuna, zeina gauzatzeko ezinbesteko baita Estatua. Estatu batek bere burua herriaren mehatxupearan badakusa, kanpotiko babesleak bilatzen ditu, bazter utziaz bere hizkuntza eta kultura, artezean edo zeharkako eran; hortaz, inguruabar batzuetan, estatua faktore garrantzitsua da herritasuna gal dadin.

Gehienbat XIV. endetik aitzina, Vascongadak Estatu gaztelarraren eragin-hesparruko dira. Baina horretan badira muntako mugakizunak. Esate baterako, Bizkaiak ez du onartuko Gaztelako erregea, errege denez, ezpaga jaun denez, eta hori notatzekoa da, zeren adierazten baitu Goi-Erdiaroko mundu-ikuskeran badagoela erregatzaren aurkako gaitzespena. XV. mendetik aitzina, Vascongadetako foruen gaztelera-zko bertsiotan formultzen da akulturilazatze-prozesuko erabakiorrena, nahiz eta prozesu hori jada abian izan XI. mendean, latinezko edo geroagoko erromantzezko udal foruekin. Vascongadetako hiru herrialdeetako foruak itun bat dira, zeina baita Gaztelako Koroaren eta goraka doazen jaun-jauntxoek artekoa; eta berriro ere badakusagu eze, Estatu, proto-estatu edo para-estatu gisa eraturako oligarkia vascongadoak saldu egiten duela herria, zeinetarik jalgi zen; horrez gain, bat dator elite gazteluarekin testu juridikoak hizkuntza arrotzean idazterakoan, zeitzu ez baitzituen ulertzen Vascongadetako biztanleentzatik % 99ak.

XIII. mendearen erdialdean, Nafarroako Foru Nagusiarekin gauza bera gertatu zen, ez baitago idatzia euskaraz, ezpada nafar erromantzez (nahiz eta ezinbestean euskarazko terminoak jaso), zeren erromantzeak esan nahi baitu erromatartasuna, Nafar Estatuaren doktrinazko oinarria dena. Egia esan, lurralde-foruek jasotzen dute batzarreek formulaturako ohiturazko zuzenbidearen zati bat, ez asko baina; hala ere, euren bidez ikus daiteke – nolabait desitxuratuta bada ere– euskaldunen jatorrizko erakuntza estatu gabekoa; baina, guztiarekin ere, haien funtsa eta formak ez dira besterik zuzenbide erromatarrerara itzultzea baino, hau da, Estatu Zuzenbidera. Foru haiek ez dira “euskotasunaren erroak” –hala esan izan bada ere–, ezpada izatez dira erro horiek ukatu eta hondatzen aurrera egiteko aldia.

Jauntxoak dira goi funtzionarioak eta buruzagi militarrik, estatuaren erakundeetakoak. Haiek eurenganatu egingo zituzten autogobernuko euskal erakundeak, barrutik jokaturik. Eta hartarako, hasi ziren eskualde eta lurraldeetako erakundeetarik, erregego zitzaie-eta, zeren udal batzarrea baitzegoen herriaren esku sendoetan. Gaztelako Estatu jaun euskaldunetaz baliatzen da bere herria zapaltzeko, eta ildo horretako adibide paradigmatikoa da Mendozatarren leinuarena, zeren –XIV. mendean– Mendozako (Araba) euren oinetxetik abiatu iritsi zen izatera Gaztelera-ko jauretze handietako bat, kokagunea Guadalajaren zeukana, eta mendeak garrenean Grande de España bilakatuko zena. Euskal Herriak eta Gaztelako Herriak sarritan pairatu behar izan dituzte menperatzaile eta tirano berberak. Bide batez, esan beharrekoa da eze okerra dela berdintzat jotzea jauntxo eta

terrateniente hitzak, deformazio ekonomizista denez, zeren estatu-politikako termino gisa ulertu behar baita lehenik, eta bigarrenik funts handikoei buruzko terminotzat. Ia segurantzaz osoz, euskal jaunen sortunea kokatu behar da X. mendean, nahiz eta ez erdietsi botere muntakorik, harik eta Nafarroako koroa gisa edo Vasongadas gisa eratu arte, XIII-XIV. mendeetan. XVIII. mendean bada euskal goi funtzionarioen eta jaunen beste aldra nafar bat, Gaztelako herriari gainjar zitzaiona, eta horietakoen adibide bat da Uztatizko German, Errege Felipe V. arenaren ministroa; guzti horretaz dio Julio Caro Barojak: "nafarren garaia" Madrilen eta espainiar inperioan. Batzuek zein bestetuek izan ziren Espainiaren zerbitzuko euskaldunak.

Karlismoak, euskal gizartean errotu bazen ere, oinarriak zituen kanpotiko ideologia arrotzean, Espainiako monarkia paternalista "onberan". Egian esan, gaitzaren erdia izan zen, liberalismo espainiarrari dagokionez, zeina izan baitzen sutsuki ukatzen zituen Euskal Herriaren oinarriak eta baloreak. Guztiarekin ere, Karlismoak bildu eta berretsi egiten zuen hainbat mende lehenago hasitako akulturizatzeko-prozesua. Geldoagoa baina seguruagoa zena, eta helburutzat zituen: modernotasunera heltzea, estatu handiagotua, herritarren komunitatearen desintegrazioa, eta pertsona giza-azpitikoa bihurtzea. Esaten badugu gaitzaren erdia zela, diogu azken baten gaitza zela. Akulturalizatzailerak zen, honako honengatik ere: esperantza guztiak zituen ipiniak estatu-erakunde aurremodernotan, ahulagoak zirenetan, eta ondorioz hain oldarkorrek ez zirenetan, baina, guztiarekin ere, euskal herriarenak ez zirenetan.

Modernotasunaren obligaziozko paradigma denez, iraultza frantziarraren mito zorigaiztokoa, izatez, da progresuaren teoriaren bertsio bereziki hilgarria, eta bai akulturalizatzailerentzako ere. Zeren zuzendua baita bere disbalioen bitartez gizateria osoa homogeneizatzera. Hortik hara, bestek beste, lege-kodeak sortzen dira (merkataritzakoa, zibila, prozesala, etab.), zeintzuek (euskal gizarteko zenbait sektoreren aldepen handiarekin) ezereztatzeko-bidean ipiniko baitute ohiturazko euskal zuzenbidea, hasieran halako zuzenbide zenez eta gero marxismoarekiko atxikipenaren bidetik, azken hau baitzen "erradikalismo" frantziarraren jarraipen hutsa. Geroago, marxismotik eratorri zen ideologia hirugarren munduaren zalea, zeina, ustez, baitzen "herri zapalduak" askatzeko, betiere eredu bakarraren arabera, hain zuzen ere kulturak eta herritasunak galarazteko eragingarria oso zenaren arabera. Guzti horretatik jalgi da egungo erregimen neokoloniala, koloniala baino galgarriagoa dena.

Sabino Arana eta EAJrekin euskal nazionalismoak ere, bere egiten du Euskal Herriaz kanpotiko ideologia bat, hau da, katolizismo vatikanozalea. Euskaldunek ekialdera begiratu behar ei dute, urrunean euren baitakoa aurki dezaten, hau da, Erroman, hango argiak emantzipatuko ei baititu. Hori justifikatu zen artoso oretutako argudiaketa batez, non katolikotasuna, foraltasuna, enpresen arlokoa eta estatuarena-naziorena baitziren ondo oretutako nahaste. Estatua izatez bikaina ei zen, ahal dela euskalduna, osterantzean espainola; eta kapitalismoa kontzebitzen

zen zorioneko modernotasun gisa, eta, berebat, onberatsu. Azken baten, uskaldunentzat PNV beti izan da alderdi espainola, hortaz akulturalizatzailea eta herritasun-galarazl. Guzti hori dela-eta aurrera bultzatu ziren bai euskal mundu-ikuskeraren galera, eta bai euskal eraketa sozialarena ere.

Iragan mendeko 5. eta 6. hamarkadetan, EAM Euskal Askapenerako Mugimenduaren eraketa honelaxe egin zen: Hirugarren Munduko deskolonizazio-prozesuak kontsideratuaz zuhurtziarik eta kritikotsunik gabe, urte haietan puri-purian baitziren. Partikularki, Aljeriaren independentzia, 1962an gertatu zena, eta delako kontsiderapena baliatzeko funtsezkoa izan zena. Besterik gabe, parekatu egin ziren Euskal Herria eta Aljeria, eta gero Kuba, etab.; eta pentsatu zen eze, haietan erabilitako jardun-bideak egokiak zirela euskal gizarterako, nahiz eta aldeak ziren agerikoak eta haundiak. Berriro ere, etxeratzen dira kanpotiko, arrotz eta bitxiak diren ereduak, zeintzuek ez baitute kontuan euskal gizartearen eraketa historikoa zein egungoa, eta horrez gain, ez dutenak ezagutzen zer den Euskal Herriaren zati handi bat; azken baten, izatez dira jite berriko formula akulturalizatzaile eta herritasun-galarazle.

Maiz hitz egin ohi zen "sozialismoaz", baina eskas euskal komunal edo herri-jabegoaz; guztiarekin ere, "sozialismo" hori da kopia eta imitazio Kubakoarena, ezpabere Sobiet Batasunekoarena, eta azkenik Venezuelakoarena, hau da, Estatu-kapitalismoarena. Harritzekoa da, bai, ikustea eze, orain dela hamarkada gutxiko liburuetan eredu abstraktu bat errepikatzean mamitzen zela "euskal sozialismoko" ekonomiaz egiten zen proposamena, hau da, herriaren berezkitasun aztarrenik gabekoa kopiatzean, zeina baliagarri ei zen munduko herrialde ororentzako, hau da, ondo pentsatu ezkerro batentzako ere balio ez duena, zeren jazoerek horixe erakutsi baitute. Aspaldiko erakunde euskaldunenak, ausaz mila urtetik honakoak, ikusten ziren erdeinuz, zeren kontsideratzen baitziren "feudal" edo "klerikal", hortaz desagerrarazi beharrekotzat, bide zegiote ordena guztiz moderno, teknokatriko, produktibo eta eragingarriari ... ezinezko ameskeria guztizko modernoa, non egiazko euskalduntasunezko zerik ia ez baitzen ageri.

Batzarrea ez zen aintzakotzat hartzen, ezpada sutzuki aldezen zen estutuari buruzko idearioa edo guztiz onartzen zen alderdien eta parlamentuaren erregimena. Hau da, bitxikeria folklorikotzat jotzen da. Auzolana baserritarren zer zaharkitutzat jotzen dena, dagoeneko ez ei baliagarri. Umeak hazteko, andreek elkar-laguntzarako zituzten jarduerak, M. Carmen Basterretxeak berreskuratuak, ez dira batere kontuan hartzen, ezikusia egiten zaie. Euskal festa herrikoiaren muina, zeinak orain dela 50 urte Alan Lomax musikologoa hunkitu baitzuen, etnografiako zeretara murriztu da. Euskal Herriaren historia -salbu gorabehera batzuk-baztertua izan da osoro, eta bihurtu "materialismo historikoaren" agerpen, "jarduera" hori ei baita zientzia ziurra jazoera historikoei dagokienez. Euskara sarri bereizi izan ohi da euskal mundu-ikuskeratik, hau da, errealtasunezko denaren osotasuna kontzenbitzeko era autoktonotik; horrez gain,

kondenatu da -beste batzuen artean- komunikazio-lanabes izatera, eta horrek, gazteriaren artean, ingelesarekiko paratzen du kinka larrian. Bai, onartu, onartzen zen eze "gure arbasoek bazeukatela etikotasun haundia", baina, -politikotasun baztertzaila eta tematia zela eta- ukatu egiten zen Euskal Herriarentzako berreraiketa axiologikoa eta morala. Azken baten, egiazko Euskal Herria ez zen gauza doktrina-dogmatismozko behelainotatik irtetzeko. Esperantza oro politikan izanik, bazterrean uzten zen ikuspegi hura, zeinak baitzioen herritasuna eraikitzeke politikaz haratago joan behar zela, zeren herri ororen "bizitzak", areago Euskal Herriarenak behar baititu osoro bateginik bizitzazko elementu materialak eta ez-materialak, politika hutsera ezin errenditu daitezkeenak, are gutxiago erakundeen/estatuaren politiketara.

Irrika hura, hau da: akulturalizazioaren aldeko egitateak, eta herritasunak galaraztea aldeztu zituen, arrotza eta kanpotikoaren aldekoa zela-eta desegiten hasi zen, hartutako ereduak porrot egin zutelarik. 80 hamarkadan, mugimendu herrikoi azkarrak agitu ziren Ajerian, zeintzu Estatu "nazional" aljeriarrak (Askapen Nazionalerako Mugimendua) erreprimitu zituen behin baino gehiagotan, ehunka hildako eraginez. Horrek ANM hori ez du paratzen ontzat jotzeko lekuan. Jazoerek erakusten dutenez, Aljeriako estatu "nazionala" ez zen herriaren alde, ezpada aurka, zeren ikernu gaiztoz erreprimitzen baitzuen. "Independentziatik" jalgiko litzatekeen euskal Estatu ere, ankerra izan liteke bere herriarekin, Ipar Afrikako eredu mirestua bezainbeste, eta susmo horrek oso bultzatu zuen desmobilizazioa. 1991. urtean, "Sozialismo Errealaren" blokea behin betiko desegin zen, eta hartarik onik atera zenak egun ez du sinesgarritasun handirik. Azkenik, EAM integratu egiten da Vascongadetako eta Nafarroako erakunde espainiarretan. Bere helburu estrategikoa da Estatu espainiarra negoziatzera behartzea, baina helburu hori ez da egingarri, zeren- esperientziak erakusten duenez- ez baitu indar aski edo -hobe esanda- gutxi halako negoziatorik ezartzeko, eta une historikoa ere Estatuaren aldekoa zen. Helburutzat garaipena badu, borroka egiteko une estrategiko egokia hautatu behar da, eta EAMk ez zuen hori egin. Analisi hori egin neukan, Egin, Punto y Hora eta beste agerkariren baten -zenbait kolaboraziotan.

EAMk dena errenditzen zuen politikara, eta bazter uzten: aurrepolitikoa zena, bizitzak darabilena, hartu-emanen ondoriozkoa, zibila zena, historiatikoa eta arbasoetikoa, axiologikoa zein etikoa zena, norbanakoarena eta pribatua. Guztiarekin ere, ezinezko egiten zuen herriaren berreraiketa, zeren ez da gizarterik politikaz bakarrik (edo printzipaliki) erakiki daitekeenik; izan ere, giza-bizitzan hura parte bat da, horixe: parte soilikan. "Independentzia" delako kontsigna gako bihurtzearen ondorioa da politikotasun hura, zeina hitzez kontzebitzen zen "Euskal Estatu erdiestea" esaldiari buruzko, hau da, klase politiko aktibista, bihurtzea euskal herriaren gainteko "klase". Guzti hori ulertu behar da kontsigna edo erretorika legetxe, zeren eguneroko egintzetan onartu egiten baitzen Estatu espainiarra, gehienik ere estatu horren eragin

batzuk apalduta KAS programaren bidez, zeinak berekin baitzituen izaite sozialdemokrata eta hitzartu edo amore emateko asmoa.

EAMk bere egin zituen barruko kontraesan aski larriak. Hala ere, aipatu akatsez gain, baziren alde onurazkoak ere, mugimendu hori baitzen erantzun bat emateko: frankismoak euskal herria itotzeko hartutako neurriei, horien artean zirelarik errepresioa, eta emigrazioa sustatzea. Mugimendu hartako egin zirenek ez zuten nahi izan ikusle huts Euskal Herriaren txikizidioaren aurrean. Baina guzti horren zio (eragina baino gehiago) izan zen: euskal berbetaren eta kulturaren aldeko kezka-ardurak berpiztea. Bestalde, bide horretan erakusten zen eze, euskaldunek eusten zietela ohiko bizitasun eta suhartasunari, pertsona gisa zituzten tasun handiei eta gorentasunezko kausa baten alde arriskatu eta pairatzeko ahalmenari.

Euskotasunetik jalgitako proposamena

Kanpotiko aterabide eta estrategia ustezkoen kopia zenez, Euskal Herriarentzat "hirugarreneko" ereduak -apurka-apunka sinestamen oro galduta- lurra jo zuelarik, sektore batzuk berriro ere hasi ziren aintzakotat hartzen propioak ziren tasunak, euskal herritasunezkoak zirenak, halatan erantzun bat edo behintzat norabide bat aurkitzeko egungo arazo eta auzietzat.

Hortaz, Auzolanaren aldeko mugimenduak esan gura du norabide-aldaketa guztizkoa, zeren eten egiten baitu gizaldietan zehar izan den aukulturalizazio barneratuarekiko. Ildo berri horretan, ez dira espero kanpotiko aterabideak, ezpada aldeztu eta bilatu egiten dira: euskal eraketa sozialean berezkoak diren elkarlanari lotutako praktika-jardunbideak, betiere eurretan erantzunak eta iradokizunak aurkitzearen amorearrren. Horixe berori da bere tasun-onura handiena, izan ditzakeen gabezia eta akats orori gainjartzen zaiona. Auzolana kontzebitu zen: orain eta hemen burutzeko praktika gisa, baina hori -oro har- ezinezkoa da -batez ere- industrialala, zerbitzuetako eta hirietako den eraketa sozialean. Hala ere, dagoen lekuan eutsi eta sustatu egin behar da auzotegi-lanari, zeina egin beharko litzatekeen ondoko programaren zati printzipal: euskal gizartea berreraiki eta iraultzeko programa, hain zuzen. Guzti hori, betiere soldatapeko lana gainditu dadin eta, beraz, erregimen kapitalista, eta eraiki beste gizarte bat, non nagusi izango bailiratke behar librea, indibiduala, familiarra eta elkarlanekoa

Auzolanaren aldeko mugimenduak badu beste akats bat ere, hu da, bere partzialtasuna, eskaintzen egungo arazoez interpretazio bateraturik, ez duelako jasotzen osotasuna eta ez delako integrala bere proposamenetan. Estrategia, programa eta proiektu gisa, euskotasunaren osotasunera jauzi egitea da: Auzolan Proiektuak hasitako bidetik aurrerantza egin beharreko bidez egin daitekeen ondorioztapen logikoena. Izan ere, garai hauetako egunean egungoaren zerak korapilatsu-bihurri direlako eta partziala zelako, behera egin zuen eta garrantzia gabeko bihurtu; baina, guztiarekin ere, horrek ez ditu ezeztatzen hasieran zituen tasun betirakoak. Guzti horrekin batean,

auzolanaren aldeko mugimendua abiatu zenean, hirugarren munduaren ildoko proiektu "idependentziazalea" indarrean zen ezkerreko, mugimendu hark ez zuen bere alde inguramendu egokirik, hedatu eta zabaldu ahal zedin. Gaur egungo egoera oso bestelakoa da, zeren hirugarren munduaren ildoko aterabidea ahitua baita, iraganeko zera denez eta inondik inora ere ez etorkizuneko.

Auzolanaren aldeko Mugimenduak bere jardunbidearen barnean badu etengabe materialak eta testuak argitaratzearena, zeintzuk noranzko egokian baitira. Badira zenbait, besteak beste, "Euskal Herria, kultura matrilineala", M. Carmen Basterretxearena; "Las vecindades vitorianas", Egin Ayllurena; "Comunidades sin Estado en la montaña vasca, S. Santosena eta I. Madinarena; **"Batzarrak jatorrizko antolaketa"**, Patxi Azparrenarena; Ampari Zubiriren liburuak, nafar iretza eta larre komunalez, Patxi Azparrenekin batean argitaratuak; Jasonerena; Pablo Sastrerenak, eta baita neureak ere, zeintzuk apailatzen ari naizen, eta argitaratuz joango diren. Bakoitzak bere eratik eta interpretaziotik, denon artean eratu dugu pentsamendu- eta egintza-korrante bat, funtsezko puntuak amankomunean dituenak, hau da: 1) euskotasunezkoa zehazteko behar da abiatu eta oinarritu: Euskal Herriaren oraingo zein arbasoen praktika, bizimolde, balio-sistema eta esperientzietan; 2) euskotasunaren historian, tradizioan eta orainaldian dira erantzun erabilgarriak, egun erabakiorrak diren arazoei dagokienez, eta, hortaz, geroa altxatzeko baliagarri direnak; 3) akulturalizazioa da gaitz nagusia, nahiz eta oinordetzan etorri zaizkigun ideologia eta mundu-ikuskerak behar diren bertaxutu, araztu eta birsortu, XXI. mendeko egoera-kondizioei dagokienez; 4) kanpotikoa baliagarri eta ezinbesteko da, horretan ez da zalantzatik, baina behar da sartu eta bertokatu euskaldunen bizimolde, axiologia eta mundu-ikuskeran -esperientziak ezarritakoetan.

Inbentarioa, jorrazteko gaiena

Arazo eta gai guzti horien gainean behar da egin gogoeta, baina baita ere haiek sartu: euskal herria irauli eta piztarazteko programa baten. Zeintzu ote gai edo arazo horiek? 18 aipatuko ditut. Jakina, badira gehiago ere, baina 18ok jo daitezke funtsezkoentzat. Guztiarekin ere, nik aipatuko ditudanak adierazte batzuk dira, eta eurotako azalpenak dira neugandik jalgitako iritziak, besterik ez, nolabait zuzen edo ez horren zuzen izan daitezkeenak; hortaz, seguruenik lagunek beharko dituztenak osatu, arteztu eta garatu.

Bat.-Sistema politikoa: autogobernua eta libertatea dituenak. Barne ditu Batzarrea eta horretarik hara eratutako autogobernuko lurralde-erakundeak. Betiere, elkarri lotutako zenbait mailatan eta erabibide politiko bat osatzeko, zeina izango bailitzateke zazpi lurralde historikoentzako, gobernu-erakuntza bakarrerekin, non oinarri lirakeen batzarredun udalak eta ez legekoen estaturik. Guzti horren gaineko metanalisiak, horixe baita behar-beharrezkoa, egitekotan behar da burutu sakonki aztertuz aurrebaldintzak, zehazki, herri-batzarrak egingarri izan daitezen behar direnak, eta horietan printzipalena da: bere burua autoeratu duen gizakiaren kalitate-nolakotasuna. Baina,

asmo-egitasmo hori egikaritu dadin gaitzetsi egin behar dira parlamentarismoaren era guztiak, eta bai erabide partitokratiko makurra ere; hortaz, autonomia-sistema. Berez errege bakoa eta "arbolapekoa" denez, irakaspen handikoa izan daiteke Bizkaiko kasua estudiatzea. Gorago esandakoaren bidez, kritikatu egiten dira erregimen parlamentarioaren era guztiak, hua da, ofizialki "demokrazia" deritzona edo lotsearren "demokrazia ordezkatzaille" gisa izendatzen dena; azken baten, diktadura-sistema, herriarentzako/herrirentzako askatasunik gabekoa dena.

Zergatik ote horren iraultzaile euskal ordena politikoa, gaur egungo erakundeen azpian ere badagoena? Bada, egiazko iraultza (Bagauda) baten emaitza delako. Izan ere, iraultza horrek bentzitu egin baitzuen Erromaren menderatze-aparatua, zeinaren aurka egitean lurra jo baitzuen Espartakok. Kristo aurreko I. mendean, Italiako penintsulan Espartakoak eta V. mendean euskal bagaudek aurrez aurre arerio berbera izan zuten, eta bai helburu bera ere, hau da, gizarte librea eraikitzea, zeinetan ez baitzen izango morrontzarik, eta bai, ordea, behar librea (norbanakoarena zein elkarlanekoa). Batzuek bentzitu egin zituzten erromatarrak, eta bestetzuak garaituak izan ziren.

Euskal Herri politikoki antolatua eta batua lortzea da azken buruko helburu estrategikoa politikari dagokionez, haren berezko aniztasunetik eta pluraltasunetik abiatuta eta lau mailako erabidearekin: 1) udalekoa, batzarren biltzarrekin, 2) eskualdekoa, zeina osatuko baita toki-batzarretariko bakoitzeko bi ordezkariarekin, 3) zazpi lurraldeetariko bakoitzean, osatuko da gobernu bat eskualde-erakudedetariko bakoitzeko bi ordezkariarekin, 4) Euskal Herriko Gobernua, zeina osatuko baita zazpi lurraldeetako bakoitzeko bi ordezkari edo gehiagorekin. **"El derecho consuetudinario en Navarra. De la revolución de la Alta Edad Media al Fuero general"** nire lanean (Haria-k argitaratua, Iruñean), uste dut azaldua dudala eze, goikoa lakorik izan behar zuelakoa, hain zuzen ere Goi-Erdiaroko (V.-X. mendeak) jitearekin, halakoxea izango baitzen iraultza bagaudazalearen funtsezko lorpena, zeina gerora desegingo baitzen estatu-eraketek gora egitean, izan ere, horiek Euskal Herriaren zatiak eurengatuz joango baitziren.

Baina, guztiarekin ere, baldintza batzuk premiazko dira, zeintzuk ageriko diren oraindik ere euskal lurraldeetan, hain justu ere ohiturazko usadioetan eta arbasoetiko ohitura-ekanduetan. Kargu edo ardura publikoek behar dute izan urte baterako eta ordaindu gabeko. Boterearen funtsak behar du egon toki-batzarretan eta batzar nagusietan; autogobernu-erakundeak ahalik eta goren badira, orduan ahalmen txikiagoa izan beharko dute egiazko boteretik. Libertatearen zimendua behar da ezarri herriaren eskupeko armatze-antolaketa orokorrean. Zeinetako kide liratekeen 14 urtetik aitzinako andrazkoak eta gizonezkoak, etxe bakoitzeko bat (horixe usadio udal edo kontzejuen peko milizietan) edo adin jakin bateko andrazko eta gizonezko oro, erabakitzen denaren arabera). Politikak izan behar du herritar guztientzako, horrexetan baitatza herri-bertutea, eta horrez gain, ez du izan behar ordainsaririk, eta ez da onartuko politika-lanbidekorik ere. Berebat, ez da izango gudaroste

iraunkorrik, ezta polizia edo herrizain profesionalik ere, auzotera armatu eta antolatua gauzatuko baititu herria babesteko eta legezkotasuna jagoteko eginkizunak. Batzarren esku-
-euren esku soilikan- izango da agintari militarrik izendatzearena, eta agintari horiek beharko dituzte izan zortasun, kontrol eta mugakizunak, zehazki, udal edo kontzejuetako kargudunek dituzten berberak. Hortaz, herriak bere burua babesteko auzolan lako bat izanen da. Funtzionario profesionalik ere ez da izango, eta batzarrearen ardura izanen da: administrazio- eta funtzionariotza-eginkizunak gauzatuko dituzten auzoak izendatzearena -bestak legetxe urte baterako-. Petxak edo zergak izango dira ahalik eta txikienak, zeintzu ahal dela lanetan edo produktutan pagatuko diren, dirutan barik; baina, guztiarekin ere, gobernu-batzetan politikoki antolatutako baseek (herritarrek) ebatzitakoak eta kontrolatuak.

Zer baldintza behar dira euskal iraultza herrikoiak arrakasta izan dezan? Europako Batasunean eta hori osatzen duten estatuetan, ageri dira ikaragarriko krisia, beheraldia eta kaosa, batez ere Espainia eta Frantzia. Eta Europako herrien iraultza-jardunak gora egingo balu, euskaldunek balukete aukerarik giza-komunitate gisa berrosatzeko, nahiz eta funtsezkoena euskaldunen eurengan legokoen. Baina, aberria eta herritasuna berreraiki eta berrosatu daitezten, lan zaila eta luzea egin behar da, zeinaren iraupena ez baita jakiterik, baina seguruenik zenbait belaunaldik beste iraungo du.

Berriro ere esan beharra dago: arlo guztietara hedatzen ez bada, iraultzarik ez da izango. Egungo baldintzetan ez dago independentziarako bide burgesik, eta, halaber, ez dago errepikatzerik 1945az geroztik Hirugarren Munduan jazotako prozesu emantzipatzaileak, zeren, izatez, ez baitzen agitu halako prozesurik, ezpada herriak erregimen kolonialetik neokolonialera eramatea. EAMren porrotak eta geroztik "procés" kataluniarrak 217ko udazkenean lurra jotzeak erakusten digute eze Europa zaharreko herriak ez direla emantzipatuko, baldin eta iraultzarik ez bada, hau da, europar eremuan (zati handi baten behintzat) ez bada garatzen egoera iraultzailerik. Eta halako egoerarik ez bada, hau da, salbaziorako den egoera hori ez agertzen ez bada, herriok desagertu egingo dira, zein da iberokoak, zeltibetoak, etab. desagertu ziren legetxe. Herri europarrak bidegurutze latz baten aurrean dira: arrakasta ala heriotza.

Bi.- Komunala (herri-jabegoa). Egoki interpretatzen ez da erraza, are gutxiago bere esangura hedatzea mende honetako industriara, zerbitzuetara eta nekazaritzara. Euskal Herria komunal egitea beharrezko eginkizuna da, baina ez du zerikusirik handirik baserriarekin edo nekazaritzarekin, zeren sektore horretan solikik dihardu biztanleria aktiboaren % 2ak. Prozedurarik izatekotan, abiatu behar da komunalaren nolokotasuna sakonki aztertzetik, esentzia edo muina atzemateko eta aldi bateko berezitasun zaharkituetatik arazturik aplikatu dadin, gaur egungo baldintzetan. Eginkizun horretatik aterako da: kapitalismoa nahiz jabego pribatu metatuko (bidegabe eta gehiegizko) era oro ukatuko duen programa. Komunala

ulertzekotan, jakin behar da estuki lotua dela etxeko edo familia-norbanakoaren jabegoari, zeina berebat kolektiboa den (sarritan ahaztu egiten bada ere).

Hiru.- Auzoen artekoa denez, laneko, produkzioko eta elkarri laguntzeko askotariko lankidetzak-jardun gisa Auzolana -berez-konplexua da, zeren era asko dira (auzotegikoa edo komunaren aldekoa; lanaldiak eta orduak trukatur partikularrek elkarri laguntzekoa; komunalak elkarrekin lantzekoa; gaixotasuna dela-eta lan egin ezin dutenei laguntasuna ematekoa, etab.) Zona batzuetan, bizibiderako baliabide komunak auzoen artean batera lantzen ziren, eta zenbait irizpideren arabera banatzen, bakoitzaren premien arabera edo bakoitzak egindako lanarekiko proportzioan, edo bi irizpide horiek bata bestearekiko konbinatuaz. Elkarlaguntzako ehunka era izan ziren, denak ere herritarrek eurek sortuak. Ezinbesteko ondorietako bat da soldatapeko edo lan ez-librea gainditzea, eta hori liteke bagaudeen iraultzaren pareko, zeinetan morrontza erromatarra eta lan esklaboa ezeztatu baitziren. Elkar ondo hartzen duten auzoen artean, auzolana da mundu-ikuskerak bat eta elkarbizitzako praktika bat. Betiere, tarteko direlarik bai afektuzko hartu-emanak, eta bai elkarrekiko langutza oniritzizkoa ere. Alderdi hori, bizimodu inmaterialari, sentimenduei eta emozioei dagokiena ez daiteke bazter utzi. Aldi berean, zelan eta auzolana baita etorkizuneko egitasmo eta programa, behar da hedatu, produkzio-baliabideei dagokienez, ekonomiazko jabego kolektiboaren esparru orotara, horixe baita aurrebaldintza lana izan dadin libre eta kolektibotasuezko. Euskal kooperatibismo herrikoia, batez ere industrialak behar da kontsideratu eta estudiatu atal honetan, izatez autogestionatua da-eta. Atzenik, hor da lanaren nozioa bera, eta bai lanaren etika ere, auzolanaren-eta zimendu dena. Euskaldunak langile onak dira. Eta lana, jai herritasunezkoa, elkarbizitza, familiaren arloa, euren hizkuntzarentzako atxikimendua eta nork bere jabetasunaz osatutako gizakiaren kalitatea dira, izatez, euskaldunen erakuntza sozialaren bereizgarri-ezaugarri. Guzti hori krisian izanik deseginez doa, eta behar da aztertu eta berformulatu. Azpimarratu behar da eze akulturalizazioa ez dela gertatzen solikan ideien arloan, ezpada, batez ere, bizitzeko era eta moldeetan, eguneroko zereginetan. Akulturilizatutako aldatu egiten ditu bere jokabideak, goitik, statu quo-tik, datozkion irizpideen arabera, largatu egiten dituelarik berari zegokion komunitatean lehenago egiten zuena eta bizi zuena, eta, ondorioz, egoteko beste era batzuk eta beste jokabide batzuk beretzen ditu. Beraz, bere kulturaz gabetua hartaz berriro hornitzeak esan nahi du behialako izaitea "etorkizunean" berreskuratzea. Hau da, onartu egin behar da honako kontraesan hau: aintzinako aldietan bezala berriro bizitzea eta aldi haietan bezala osterak ez bizitzea, zeren errepikapen hutsa ezinezko baita, den oro da-eta aldi baterako. Ondorioztapen garrantzitsuena hau da: auzolanari buruzko metaanalisia behar-beharrezkoa da. Horretarako lagungarri da Bonifacio de Echegaray-ren liburua, 1933an argitaratua: "**La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco**".

Lau.- Kultura. Berreskura dadin, behar dira printzipioak eta balioak egokitu egungo baldintzei, eta horretarako behar-beharrezkoa da sormena. Kultura da esperientziazko jakintza guztien batuketa, giza-existentziari dagokionez. Jakitate herrikoaia jakintza eruditua baino goragokoa da, eta huraxe sustatu behar da, zeren esperientziaren ezinbesteko ondorio baita, ezen ez jakintza akademikoaren eta unibertsitatekoaren ondorio, horiek berez baitira gehienbat doktrinatzeko edo leziatzeko. Hori dela-eta gustuz (ez baina kritikarako aukera bazterturik) kontsulta daiteke "**30.466 atsotitzak**" liburua, Gotzon Garatek apailatua. "*Militarrak, poliziak eta soldatuak: onak gutxi, gaiztoak asko*" esaera kontsideratzekoa da zerrenda honetako I. puntuari dagokionez, hau da: Estatutik gabeko Euskal Herria altxatzea soilik batzarrarekin eta hortik eratorriak diren tokiz gaidiko autogobernuko erakundeekin; beraz, militarrik eta poliziarrik gabe, hots, herritarren armatze-orokorrarekin, aldi bateko kontzejuetako miliziak imitatuz. Esperientziatik egia edukitzat eta helburutzat dituen jakintza herrikoaia sortzea ez da bateragarri eta aurka dago honako honekiko: gezur- eta doktrinatzeko-egoera egun bizi dugunarekiko, eta ez da ahaztekoa ere, Platonek onartu zuenez, Estatuak beharrezko dituela engainamendua eta faltsukeria; hortaz, sustatu eta gauzatu egiten dituela. Halatan, bada, gizarte autogobernatuak solikan izan dezake oinarritzat egia finitua. Halako esaldiaren edukia darabil Thomas Jefferson-ek ere, esaera horretan azaldutakoa zehatzagoa eta laburragoa bada ere.

Bost.- Libertatea da ondasun gorenetan goikoena, zein ote libertateaz euskal ideia, pentsamenduari eta bizitza-esperientziari dagokienez? Horren analisisa egiten zaila da, baina ez ezinezkoa. Egungo eta iraganeko euskal gizartea aztertu behar da, euskaldunentzat libertatea zer den ulertzeko, eta, halaber, zelan gauzatzen duten. Libertate politikoa erraz azaldu eta argudiatu daiteke, zeren lehen epigrafean ebazten baita. Libertate zibila, eguneroko bizitzan agertzekoa dena, ikertzea korapilatsuagoa da. Kontzientzia-askatasunaz gauza bera. Eta pertsonaren askatasunaz areago. Pertsonaren askatasuna erabakigarria da, eta bere zehaztapenak hainbat dira: erantzukizuna, mugak bestearekiko eta ez besteren aurka, etab. Baina baikor izan daiteke. Gauza ez da, ba, eze libertatea eta Euskal Herriaz tratatu bat idaztea, ezpada ideia ulergarri eta xeheak, erabakigarri direnak, erdiesteak, euren bitartez gaia pragmatikoki lantzeko. Guztiarekin ere, libertateak behar du izan helburu erabakigarri, eta azpimarratu behar dut eze, hirugarrenen "independentismoan" ez zela ageri. "**La democracia y el triunfo del Estado**" izeneko nire liburuan, ez da lantzen behar den beste libertatearen analisisa; hortaz, arlo horretan egitekoa handia da.

Sei.- Zuzenbidea. Gizarte libre baten ahalik eta arau juridiko gutxien izan behar da; horrez gain, behar dute izan herrikoak, ez dituzte egin eta aplikatu behar kidego espezializatuek, eta batzarreak behar du izan, aldi berean, botere judizial eta botere legegile. Antzinako zuzenbide ohiturazkoa berreskuratu eta berrosatzeko, egun ondo hausnartutako analisisa egin behar da, ez zaila ordea: herria burujabea bada, Zuzenbidea herriaren

eginkizuna da, ezen ez inork izendatu ez dituen estatu-
botereena.

Zazpi.- Jaia. Lana bizitzaren parte da, eta bai jaia ere: ezin daiteke izan gizarterik jairik gabe, eta euskotasunaren bereizgarri izan dira jaia ospatzeko modu erabatekoa eta olgeta-farrak. Gaur egun, guzti hori galtzen ari da, zeren modernotasunak egiten baitu pertsona triste eta aspergarri, eta, aldi berean, deprimitu, gizarterako gauzaeza, atezuko eta beti nekaturik dena. Gauza printzipala dira euskal jai edo festa herrikoiaz hurnarketa-gogoetarik egitea, finkatu-zehaztea ondorio eraldatzaileak eta eurok gauzatzea adoretzu, zeren hala, besteak beste, gazteria erakar liteke. Arlo horretan, ez da amaitu aulturalizazio-prozesua, ez guztiz inondik inora, eta egoera hori baliatuaz egin daiteke azken buruko kausen analisia (metaanalisia); hartarako, argudio-sail bat bildu eta finkatuz, eta horrekin dagoenari eusteko eta desagertutakoa birsortu-biziarazteko. Auxiban (Elgoibar), bazen gizonezko bat, zeinak bazeukan argitaratua liburu bat eskualdeko txisteez eta beste zer jostagarri-entretengarri batzuez, euskaraz jakina, harekin berba egin nuen apurtxo baten eta ikustekotan geratu ginen. Halakorik gehiago ere izanen da, eta eginkizuna liteke gehiago bilatu eta aurkitzea.

Zortzi.- Euskal Herrian andrazkoaren kondizioaz: esperientzian eta egiazkotasunean oinarriturik, ezen ez instituzioen teorietan (betiere, Berdintasunerako Ministerio espainiarrak edo haren adar autonomikoen finantzatuak), analisia egitea beste gai printzipal bat da, hain justu ere izan denaz, eta, batez ere, etorkizunerako proposamena egitekotan. Gaia hori erabakigarria da, zio anitz direla-eta. Hor dugu M. Carmen Basterretxea-ren lana, eta hortik hara aurrerantza egin behar da, andrazkoaren kondizioaz egitasmo integral bat taxutzearen amorearren.

Bederatzi.- Demografia. Egoera demografikoa ikaratzekoa da, batez ere Vascongadetan. Jaiotza aski ez dela-eta euskaldunen herria atzetzeko arriskutsuan da; arazo horrek bere barruan badu konplexutasun eskerga edo haundia. Aterabidea ez da immigrazioa. Alemania, EBN nagusigoa duen potentzia inperiala denez, burutzen ari da ordezkapen etnikoa eta arraza garbiketa; hartarako, ezinbestekoa dira gizarte ezin otzanagoa eta guztiz akulturalizatua eraikitzea, zeina izanen litzatekeen Europaren aurkakoa. Arbasoek umeak hazteko zituzten erak -XXI. mendara egokituta- berreskuratu egin behar dira, hala seme-alabak artatzen komunitateak ere parte hartu dezan, gorago jada azaldua dudanez. Baina arlo horretan gehiagorik ere egin behar da; izan ere, gaur egun Europa asaldaraziz abian da maitetasuna, erotismoa eta sexu heterosexuala erreprimitzeko erasoak, zeina abiarazi baitute eraturako botereak eta hedatu euren baseko eragileak. Erreproduktzorako sexua, zehazki, libre, pasional, arduratsu eta norik berak ebatzitakoa ezinbestekoa da demografia errekupea dadin. Arlo horretan, gomendagarria da Félix María de Samaniego euskotarraren "El Jardín de Venus" liburua, testu pikaro, lotsa-gutxiko eta libertigarria baitu, eta bertan aurki daiteke irribarra zein erotismoa areagotzeko ziorik. Egia

esan, Euskal Herriak seme-alaba gehiago sortu beharko ditu (hiru andrako), bestela ez baitu luzaro iraungo.

Hamar.- Belaunaldien arteko gatazkak edo gorabeherak. Utopia (distopia) munduko guztiko gazteriari helarazten zaio, zirtzileriazko zantarkerien bitartez helarazi ere: dena ingelesez, teknologiak salbatuko ei du gizateria, nor bere zuztarrak ahaztea, estatu-instituzioetan fede tinko-irmea, fastfood delakoa aldezte, eraturako botereari jarritu ezker etorkizuna ei liluragarri, etika eta balioak ei dira zer zaharkitu, kultura sortzen nornabanokoak ez ei du behar parte hartu ezpada kanpotik jasotzen eta erosten, norbanakoa ei da ondorio ezen ez sekula ere bere kausa, iragana txarra ei da eta etorkizuna, oster, ona, etab., guzti horretatik aterazten dira akulturalizazio-prozesuak, batez ere 30 urtetik beherako orori eragiten diotenak. Euskal Herrian ere guztiori gertatzen ari da, nahiz eta beharbada ez horren indartsu, baina, betiere, eragin egiten zaielarik funtsezko jardueri, aurrepolitikoei eta politikoei. Kontzientzia nazionala eta herrikoia galtzeko prozesua lehengoratego, gazteriaren gaia tratatu eta eztabaidatzeak behar du izan eginkizun printzipal eta funtsezko. Guzti horri lotuak dira edukazioa, eskola-sistema eta unibertsitatea, zeintzuek baitituzte helburu ezin aitortuzkoak eta pedagogia makurra, munduko alde orotan. Gazteriarengana heltzea, batez ere bere sektore dinamikoarenera, hau da, adrazkoenera, izatez, da helburu premiazko, erabakigarri eta ezinbestekoa. Argudio printzipaletarik bat da: gazteriari azaltzea zein den egungo ordena europarrak eskaintzen dion etorkizun egiazko-erreal, zeina baita hitsa eta ikaratzekoa.

Hamaika.- Teknologiaz pentsatzea. Mundu osoan, berrikuntza teknologikoei zaien jaiera arrazoizkoaren kontrakoaren bitartez zenbait helburu lortzen ditu eraturiko botereak; besteak beste, iraganaren gaitzespen implizitua, hari penaz eta mesprezuz begiratzen baitzaio, ez delako teknologikoa; eta horrek areagotu egiten du nork bere zuztarrak eta etorkia ahaztea. Euskal Herriko gizartean, gaur egun eta duela aspaldidanik ere teknologiak garrantzia nabarmena izan du, eta hori dela-eta gaia analisisa-metodologia zorrotzarekin aztertu behar da, euskal iraultzan teknologiaren lekua finkatzeko. Guztiz gaitzesten du teknologiaren aldeko mentalitate inozoa Mariana Mazzucato-k "**El Estado emprendedor**" liburuan; izan ere, bertan frogatzen baitu informatikako azken berrikuntza batzuk, zehazki, iPhone eta Steve Jobs-en ingurukoak Estatu Batuetako militarren premien ondorio direla, eta ez teknologia produkzioaren zerbitzutan ipintzearen ondorio, are gutxiago "herritarren onerako" baliatzearen ondorio. Bada antzeko azterlan gehiago ere. Baina esandako hori ez da ulertu behar, beste barik, teknologiaren gaitzespen gisa, zeren hori ez da posible ezta desiragarri. Teknologiak (parte batek) egun duen espresioari erreparatuta egiten da kritika, zeren egungoa -dagoen legetxe edo aldakuntzekin- onartezina baita, eta kritika hori ulertzekotan kontuan izan behar da nolakoa izan beharko lukeen teknologiak gizarte libre-berreraikian. Madrilgo Gobernuan zegoen ezkerak, Gasteizko Gobernuaren laguntzaz desmuntatu egin zuen euskal industria, produkzio industrialaren zati handiena Alemaniak izan

zezan, eta herrialde horrek Europako nagusigoa erdietsi zezan, gaur egun duena, zeina deskribatzen baita Hans Kundnani-k idatzitako **"La paradoja del poder alemán"** liburuan. Egoera hori berriro aztertu behar da.

Hamabi.- Iraganean euskal gizartea landakoa zen gehienbat (jakina eta onartua da eze XIV. mendera arte ez zela uririk Bizkaian, hortik esplikatzeko da elizateen sistema), baina gaur egun nagusi dira metropoli eta hirietako antolakuntza, non landakoa zein naturala denak gero eta munta txikiagoa duen. Hiri-munduaren sistema nahinorako orokortuak ezin du iraun luzaz, zeren ezinezko egiten baitute nekazaritzako jardute-errek, lurren degradazio gero eta handiagoak, lurrak agortzeak, edateko uraren eskasiak eta klima-aldaketak, **"Bienaventurada la maleza porque ella te salvará la cabeza"** liburuan azaltzen dudanez, liburu horren egileetako bat bainaiz Hori dela-eta, Alfonso Vegara-ren zuzendaritzapean Eusko Jaurlaritzak argitaratutako "Euskal Hiria" delakoari -artikulu bilketa denari- "errepasotxo" eman behar zaio. Euskal Herriko lurraldean, biztanleriak zentzuzko kokapena izan dezan, proiektu bat eta estrategia bat formulatu behar dira. Helburua litzateke biztanleria bizi dadin: pilaketa kutsagarri gabe, elkarbizitzarako leku egoki eta luzaro iraungo luketenetan. Guzti hori da: bultzatu behar den berreraiketa nazionalaren zein iraultza integralaren parte. Egiak, "Euskal Hiriak" ukatu egiten du Euskal Herria, hitzez hitz eta era askotan. Horrez gain, euskararen dagoen kosmobisio inplizituaren gainean ikertu egin behar da, jakiteko ea egokitu daitekeen ala ez XXI. mendeko gizarteak duen hiri-giroko bizimoldeari.

Hamahiru.- Historia. Historia idatziaren -historiografiaren- helburuak behar du zehaztu-finkatu egia posiblea iraganaz, egungo helburu politikoek edo ideiek helburuori kutsatu gabe, ideiek-eta onak zein txarrak izan. Historia orok behar du izan aurrepolitikoa, hau da, beste barik egiazkoa ahal den neurrian, horretan sarritan askotzarik ezin bada ere. Euskal Herriaren historian argitu beharreko jazoerak dira -ene iritziz-: monakotza (zenotibismo) kristau iraultzailea, zeinaren agerpen ikuskera ederrekoa baita Arabako haitzetako multzoa, gorago aipatua, 2) X. mendean, al-Andalus-eko inperialismo musulmanaren aurka euskaldunen herriak egindako borroka hil ala bizikoa, batez ere Almanzor-en gudaldi genoziden aldirian (977-1002); izan ere, horietan sortzen edo finkatzen elite armatuak, gerora lurraldeetako jaunak izango zirenak, zeintzuek osatu-taxutuko dituzten Nafaraoako eta Gaztela/Vascongadetako estatu-erakundeak, hain justu ere neurri baten ulertzekoa den prozesu baten bitartez, zeren euskaldunek borrokan ziharduten herri gisa iraun ahal izateko; hartarako, gudari profesionalak eratuaz edo baimenduaz, denborak garrenean euren herriaren aitzi paratuko baziren ere, hari horretan ez da halabeharrezkoa Antso III.aren -1004an printzipea- erregaldi erabakigarria -Almanzor-en heriotzatik harako, 3) egoki litzateke oso Batzarreaz historia bat egitea, eruditua, zehatza eta osobetea, zeinak beharko lukeen baitan esangura "esanguratsua", eta jaso beharko lituzkeen lehen dokumentuzko iturriak, X. mendetik gaurdaino doazenak, 4) euskaldunen herriaren historia 1970. urtetik

(Burgoseko Epaiaketaren aurkako mobilizazioak barne direla) 2011. urtera artekoa –orduantxe dager baita Auzolanaren aldeko Proiektua–, 5) Vascongadetako hiru lurraldeen erakunde politiko eta juridikoez egiteke dago estudio zehatz-zorrotza, gorago esana dagoen legetxe baliagarri izan dadin etorkizunean, 6) iraultza fantziarra Iparraldean (Laphurdi, Baxe-Navarre, Ziberua), edo euskaldunen aurkako genozidioaz historia, horretarako egoki oso da Jose Mari Esparzaren azken liburua, **"¡Abajo las quintas! La oposición histórica de Navarra al ejército español"**. Bada premiazko gai gehiago ere, baina, guztiarekin ere, aipatutakook dira lehenestekoak, ene ustez.

Hamalau.- Baserria. Nekazaritzako ustiapen baino askoz ere gehiago da, zeren baita euskaldunen muin sozial, kulturazko, estetiko eta sentimentalaren arlokoa. Gaur egun desegiten ari da, gazte-jendeak abandonatu egiten baitu, eta horrez gain, gero eta gutxiagok –gehientsuenak erretretadunek– eusten diete aldi bateko ekoizpen-jarduerei, oro har ez dagoelarik belaunaldien aldetiko segidarik. Eusko Jaurlaritzak erre daroaz zergekin eta asmo-txarreko eta zentzugabeko legezko araudiekin; hark/guk ez dakigu zer egin, beste zer-asuntu askotan legetxe. Arazoa beharko litzateke eztabaidatan jarri, aitortuaz eze inork ere ez duela soluzio-aterabiderik, baina –aldi berean– beharko litzateke esperantza jarri jende arruntaren ekimenetan eta sormenean, hortik letozke-eta aurrerabideak. Horiek baina, beharko lukete etorri herritarretarik ezen ez instituzioetarik. Hala jokatzea giltzarri da, zeren aipatu asuntoetan agertu doaz kolektiboak, zeintzuek engainatu ohi baitute jendea, hain justu ere lege batzuekin –direla Madrilgo, direla Gasteizko, direla Bruselako– arazoa konponduko dutelako kontuarekin. Baina hori, izatez, da faltsua osoro, zeren baserria atzentzea programa baten barruko da, euskaldunak osoro akulturalizatzeko eta kulturaz gabetzeko hartakoa, zeina inplizituki baita proiektu gbalizatzaile-mundualizatzailean. Soluziorik izatekotan, herrikoa izan behar du, ezen ez instituzioetatikoa. Garbi hitz eginda, instituzioen eskutik ez da soluziorik, eta bada egiteko dagoen eztabaida Euskal Herriaren etorkizunaz, hau da, noren eskutik etorriko ote soluzioa?, estatu-erakunde eta alderdi politikoetarik ala Euskal Herriko herritarrengandik? 1979. urtetik aizina, Vascongadetarako autonomi-estatutuaren bidez legalitatea "aprobetxatu" behar zelakoari eusten zioten haiei bada egun galdera egiterik: zer lortu duzue? Erantzuna erraza da, aldekorik "ezebez" eta kontrakoetan garrantzitsuenari egin zaio kalte handia, hau da, jendeak bere buruarendako zituen erantzukizunari eta konpromisoari, alegia. Politika-lanbidekoegan edo instituzioetan (espainiarrak eurak, udalak zein autonomikoak) ardurak uzteko deia egiten bazaie herritarrei, manipulatu egingo dira: ez daitezen arduratu euren arazoez, eta bihurtu daitezen gizaki geldo-pasibo, jendetzako eta artaldeko, ezen ez herriko edo herritasunezko. Baserriaren asuntoa da, halaber, euskal nekazaritzaren arazo eta bai elikagai-hornikuntzarena ere, bazter utzi gabe ingurumenarenganazko ardura-kezkak.

Hamabost.- Baloreak, printzipioak, etika eta axiologia. Euskaldunen herriaren aiurri-idiosinkrasia, bere izaite banako

konkretua, egun zein ote? Gaia aztertzen zaila eta korapilatsua da, zeren herrien izaiterearen gaineko ikerketa baita; izan ere, ager litezke arbitrariotasunak eta manipulazioak. Gaia arlo zail-eztabaidagarrietara eramanez, egoki da baieztatzea ezeuskotasunak behar duela axiologiabide propioa, eta bai baloreen eta printzipioen ordena dinamiko-zalua -gizartearen zein norbanakoaren eguneroko jokabide-eginkizunak arteztuko dituen- ere, zeinak beharko lituzkeen hiru etorki edo iturburu: euskal kosmopolisio etikoa herriaren esperientziatik eratorria analizatzea, egungo kondizioak aztertzea esperientzian oinarriturik eta teoretikariki aparte eta, halaber, haietazko erantzun moral egokia, eta gizaterian zehar, gai honi dagokionez, diren zer hoberenak hartu eta etxeratzea. Axiologiaz eta iraultza moral eta axiologikoaren urgentziaz ez bada axolarik, ahalegin iraultzaileak ez du izango arrakastarik, zeren hala ez baitzaio bide egiten komunitate herrikoien kemen-adore etikoari. Norbere buruari mugak jarrita pentsatu ezker, soilik pentsatzen da politika eta ekonomiaren arloez, trabatu egiten da kultura herrikoa berregitea moralaren arloari dagokionez, zeina honako hauek finkatuaz gauzatzen baita: arauak, kategoriak eta irizpideak, zehazki, existentziako une garrantzitsuenei aurre egiteko direnak, jaiotzatik heriotzara artino. Arlo zehatz bat kontsideratzearen, euskaldunen arteko bereizgarria da hartu-emanetarako eta elkarbizitzarako era baliotsuak eta atseginak izatea, horixe baita aldi bateko erakunde funtsezkoen -batzarrea, komunala eta auzolana- kausa eta ondorio; baina ondare bikain hori galduz doa. Ondare hori berreskuratzea beharrezkoa da, betiere gaurkotutako formulazioaren bidez; izan ere, aberria askatzeko proiektuaren parte printzipala da-eta, baina horretarako ezinbestekoa da beren-beregiko estrategia bat. Euskal gizarteak badu premia honako hauek zehazteko: balio "baliotsuak", maitetasuna, libertatea, burujabetasuna, ontasun morala, edertasuna eta bertutea. Heleno Saña-ren berbaurrea duen **"Ética y revolución integral. Reflexiones para una sociedad convivencial"** liburuaren egileetarikoa bat naiz, eta bertan tratatzen dira aipatu bezalako gaiak.

Hamasei.- Norbanakoa, pertsona. Ondo osatutako ezin gizartetan, norbanakoak behar du izan abiapuntu eta helburu edo helmuga. Pentsatu ezker soilik kontuan izanik gizarte edo herria edo nazioa, baina ez era berean norbanakoa, pertsona edo subjektua; bada, orduan, ondorioztapenak izan daitezke onartezinak. Estatuak duten erakuntza sozialetan, Estatu-arrazoa da zer printzipalena, edo estatuak aginterako eta nagusigorako eratutako guztiz pribeligitua den taldearen onura, zeinak nornabanoa sakrifikatzen baitu norbanakoa bere betiko helburuaren amorearren, hau da, gero eta botere gehiago metatzea. Enpresarioek eratutako erakuntzentzat pertsona ez da besterik eskubeharra baizen, hau da, buztarrirako abere giza-itxurakoa. Hor ikusten da gizakia hondatzeko duten joera. Gaur egun eta hemen, pertsonaren kaliltateak -nork berak altxatu balio edo bertute pertsonal gisa- behar du izan goreneko helburu. Norbanakoak izan behar du -berarengan eta berenez- bere burua osatzeko erantzukizuna, eta horrek eskubidetik baino gehiago du eginbeharretik, zeren norbanakoaren libertateak horretan baitu

zimendua. Euskal Herrian persona kalitatea handikoa izan ohi da, bere balio, nortasun eta burujabetasuna direla-eta. Herritarrek nortasun ahaltsuak zituzten gizartea izan zen, bakoitza beregaina izanik eta denak batasun bat, guztien onura lortzearren. Batzarrea, komunala, auzolana eta baserria lako erakundeek ahalbitzen zuten hura eta ezinbesteko ere egiten zuten. Gaur egun, ostera, egoera nahastetsua da, eta bada txarrera egiteko joerarik; hortaz, nahitaezkoa da euskal pertsonaz eta bere berreraiketaz gogoeta egitea, iraganeko hoberena –egungo kondizioei dagokionez– gaurkotuta berreskuratuzeko.

Hamazazpi- Euskara. Gizaldi askotan zehar, euskararen bereizgarria izan da: herriaren eta jende arruntaren onadare izatea, zeina garatu eta mantendu ohi da botere-aparatu orotarik aparte eta edo haien aitzia, Elizarena zati baten salbuespena da, zeren bere pastoraltzarako ematen baitio legezketasun zerbait euskarari. 1979ko Euskal Herriko Autonomia Estatutuak funtsezko aldaketa ekarri zuen, zeren euskara "*Euskadiko hizkuntza ofizial*" (6.1. art) bihurtzen baitu. Hua da, Estatu espainiarrak antza bihurtzen du berak sustatu ea babestutako hizkuntza... baina hori da, izatez, otsoa ipintzea arditegia jagoten. Nazionalista eta "idependentziazale" askok lorpen handitzat dute berrikuntza hori, euskararen iraupena bermatuko ei duena; baina hori aztertu egin behar da zuhurtasunez eta espiritu kritikoa. 38 urte igaro direlarik, euskararen egoera ez da batere ona eta epe ertaineko bere etorkizuna ez dago bermaturik ezelan ere. Estatu espainiarra beti izan da euskararen arerio, bere erakunde guztien bitartez, eta, halaber, Europako Batasuna, non –zelan eta dagoen integraturik hizkuntza koofizialen mailan– ez da ikusten besterik euskara hondatzeko beste estrategia bat baino. Artezko errepresioaren bitartez, Frankismoak aipatu helburu berbera izan zuen, betiere ahaleginak eginez jokabide hori ahalik eta gutxien ezagutu zedin. Parlamentudun erregimen epainiarrak, 1978ko Konstituzioaz eratuak, eta EBk zeharkako beste estrategia bat darabilte, zeinaren muina hauxe baita: hezkuntza-sisteman sartu, koofizial egin, denek ikas dezaten ... baina azken baten gero eta gutxiago erabil dadin, harik eta atzendu dadin artino, "berez" hilko bailitzan. Instituzionalizatua dagoen ezker, nahia dute euskaldunen herriak ez ditzala izan ardura eta erantzukizuna bere hizkuntzaren gainekoak; izan ere, euskararen bizitasuna eta iraupena paratzen baitira erakundeek eta "adituen" eskuetan, eta zelan eta beti izan baita erria/Estatua aurkakotasuna (aldi bakoitzean, aurka eta talka egite-maila zentekin); bada, batzuk, egungo egoeran, sentitzen dute arrotz-edo. Guztiarekin ere, egitatea da eze apurka apurka hizkuntza herrikoitasuna galduz doala, Estatuaren eta erakundeek hizkuntza egiteko. Horrez gain, aipatu behar da globalizazioak dakarrena, EB eta inglesa direla tarteko, azken hori eskatu eta ezartzen baitie, gero eta gehiago, empresa multinazionalak bere langileei, eta, halaber, astiordu edo aisaldiko industriak eta komunikaziorako sistema planetarioek. Egungo inguruabarretan, neo-ingeleak (ia hizkuntza ez denak) izan ezik, beste hizkuntza guztiek, geh ere, toleratutako hizkuntzen estatu-maila dute, baina –horretan ere– eratutako botereek gero eta eroapen eta oldarkotasun handiagoa

agertzen dituzte. Ondorioa da: oraingandik egin behar da euskararen gaineko gogoeta-hausnarketa, ezen ez kontsideratu frankismoaren bukaeran (1975) egindakoa baliagarria izan daitekeenik etorkizunerako. 42 urte igaro dira, ia mende erdi, eta ez du ezer balio egungo errealtateari muzin egitea, ezpada antifranquismo zaharkitu bat lantzen jarraitzeko. Euskara hedapeneko eta aurrerabideko fasean sar dadin, aurrebaldintza da iraultza integrala, iraultza bagaudaren erara, haretzek salbatu baitzuen desagertzetik, Iberiako penintsulan ziren beste hainbat hizkuntzekin gertatu zen legetxe. Bien bitartean, euskaldunen bizimoldea eta kultura berreskuratzearen mende da euskaren iraupena, abian den akulturizatze-prozesu ikaratzekoa tzulikaraziz, eta inola ere ez instituzioetan izan dezakeen "izaitearen" mende. Instituzionalizatzeaz ilusionatzen diren azken ohartarazpena: Estatuko egiten den herrikoitasunezko oro da, izatez, estatu-aparatuaren osagasi, eta horrez gain, usltedu eta endakatzen, berezkoatasuna galtzen, eta azken buruan hondatzen. Zeren eta erria eta Estatua elakarrekiko aurkako baitira.

Hamazortzi. - Urte askotan, mendeetan zehar, Euskal Herria batez ere gizarte indusriala izan da, gaur egun abian den desindustrializazioaren arte (Alemaniak bere onerako sustatua), zeinak ekarri baitio gaur egungo konfigurazioa, bere produkzio-sistemako osagai nagusi direlarik zerbitzuak. Langile-klase ugari eta ekintsua izan zuen, lehenik Bizkian eta Gipuzkoan eta gero Araban eta Nafarroan. Egun, zelan eta mintzatzen baita eta idazten liburuak "laugarren iraultza industrilaz"; esate baterako, Klaus Schwab-en librua, ohartzeko den Ana Patricia Botín-en hitzaurrearekin; bada, beharrezko da euskal langile-klaseaz hausnarketari berrekitea, bere orainaz eta geroaz. Dagoeneko ez da tarterik aldi bateko mesianismo proletariozale zaharkitu eta matrakatsua errentzat, baina bai, ostera, egiteko dagoen iraultza holistikoa langile-klaseak izanen duen egikizun errelazaz jarduteko eta eztabadatzeko.

Guzti hori zertan datza?

Badira zenbait helburu: 1) gaur egungo arazo-asuntu nagusiez herri-jakintza bat apailatzea. Gaiotako batzuk aipatuak izan dira goragoan, baina denak batera ere kontsideratu behar dira. Ez da baztertzekoa: estudio sakonak eta eruditokoak egitearena; baina erabakigarriena da ideia hura berreskuratzea, jende arrrutaren esperientziatiko jakitateari dagokiona, XXI. mendeko baldintzei egokitutakoa, 2) gai horietaz jardungo duten hausnarketa- eta ikerketa-taldeak sustatzea, gaiak baitira konplexuak, zeintzuentzat ez baitago erantzunik edo soluziorik, partzialak baino ez kasu hoberenean ere, nahiz eta, aldi berean, denok dugun zerbait esateko, zeren eginkizun horiek herrikoitu egin behar baitira, 3) gaur egungo gai nagusieariko batez edo zati batez interesa duten kolektiboak eta pertsonak batu eta hartu-emanetan jartzea; halatan, harremanezko bilbe bat osatzeko, zeinak gizartea osoa dinamizatuko duen, 4) aipatu arazoez ikasia eta prestatua zenbait bidetatik herritarrei helaraztea; batetik, helarazitakoa denek artean aztertzeko, eta, bestetik, arazoentzako erremedioak bilatzeko.

Aktibitateak eta eginkizunak

Gau egungo kondizioei egokituena da Manifestu bat apailatu-prestatzea, zeinetan landuko behar bailitzateke egoerari buruzko analisia, landu ere egiazkotasunez, zentzu estrategikoaz, txukuntasun-elegantziaz, laburki, herri-jakintza baliatuaz, ideologia esplizituak aparte direla; eta horrez gain, soluzio-bideak formulatu beharko lituzke. Hainbat pertsonak eta kolektibok sinatu beharko lukete. Delako manifestua pretatzeko aldia oso garrantzitsua da. Eta bertan eskaini beharko litzateke erreperazio-programa eta -egitasmok bat kulturaz, autogobernuaz eta euskal kosmibisioaz, arlo zibilari dagokiona, eta, era berean, aurrepolitikaren eta instituzioez kanpoko politikaren arlokoa dena. Azken baten, manifestuaren edukia honako hitz hauetan laburbil liteke: Euskal erriak bere buruaz berenez egindako formulazioa. Asmoa litzateke bat egin dezaten iraganak, orainak eta etorkizunak.

Helburua litzateke era dadin herritarren eskutiko mugimendu bat, instituzioetatik eta alderdieetatik kanpoko, doktrinarik gabea eta askotariko-anitza, eginkizuntzat honako hauek lituzkueena: herritarren goranzko kontzientzia-aldi berri bati ekitea, eta euskal emantzipazioari ekitea; betiere, XXI. mendeari eta aniztasunari dagozkin kondizioak kontuan izanik, eta esperanzatxaropenak herritarren sormenean eta ekimenetan jarririk.

Eta segidan adieraziko ditut aipatu **Manifesua** prestatzeko aurretiazko atazak. Horietarako beharko litzateke epe luzetxoak, jo dezagun urte bat. Epe hori igaro ostean argitara emanko litzateke.

Lehen litzateke aditzera ematea oinarritzko idea, hau da, Euskal Herriko egungo arazoak eta asuntuak uler daitezkeela, eta badutela soluziorik ere honako hauetan oinarritu ezkerok: euskaldunen kosmobisioan, bizimoldean, arbasoen erakuntzetan, hizkuntzan, axiologian eta indiosinkrazia-aiurrian, hain justu ere egungo kondizioei sormenez egokituz gero. Beste era baten esanda: globalizazioaren aroan, euskal herriak jasaten duen mendekotasunari aurre egitea, EHren beraren esentzia-muina sormen eta aldezkotasun zabalaz gaurkotzearen bidetik.

Guzti horrekin egin behar da Manifestuaren zirriborro bat, debateetarako testua izango dena eta ahal denik gehien zabalduko dena. Baina kontzepzio oinarritzkoa, arrazioak biltzen dituenak, argudiatzeko zerbait gehiago behar da. Lehenik eta behin, euskal gizarte osoari erakustea eta esplikatzea. Hartarako, behar da pentsatu eta findu estrategia berariazko-zehatza. Lantalde bat eratu beharko litzateke, zeina arduratuko bailitzateke aipatu manifestua idazteaz eta zabalteaz eta iristen diren iritziak jasotzeaz. Beste eginkizunetako bat da: azken hamar urteetan, euskal gizartearen kondizioaz argitaru diren liburuetan esanguratsua dena biltzea. Eurotako batzuen zerrenda gorago aipatua izan da, beste egile batzuenak eta neureak hor leudeke. Guztiek ere osatzen dute argudio-sail baliotsu-egokia. Bildu beharko lirateke multzo baten, zeina beharko litzateke esplikatu

eta argudiatu. Eta multzo beharko litzateke ezagutarazi, argibideak eman eta herritarrengana helarazi; guztiarekin ere, liburok irakur daitezzen eta iruzkinduak izan daitezzen. Berebat, Euskal Herriko herri edo hiri nagusienetan beharko lirateke antolatu ekitaldi publikoak (ehunka persona erakartzeko pentsatuak eta prestatuak), zeintzuetan parte hartuko luketen aipatu liburuen egileek (batzuek edo denek). Ekitaldietako bakoitzean eta lehenik eta behin, aipatu osotasunari zentzua ematen dion ideia nagusiaz azalpen ondo hausnartutakoak emango lirateke, zertarako-eta ideia hori zabal dadin, eta pertsona eta talde gehiago sar daitezzen proiektu estrategiko, iraultzaile eta herrikoira. Ari dira prestatzen liburu gehiago ere antzeko esanguratasuna dutenak, eta norbanakoak eta taldeak ere sustatu daitezke beste batzuk egitera.

Liburuen "mundutxoa" parteetariko bat baizen ez da. Gazteriarengana heldu-hurretatzeko, behar dira bide berriak saiatu: bideoak eta Internet, besteak beste. Garrantzia guztizkoa da ikus-entzunezkoen proiektu ahaltsu bat finkatu-ezartzea, kanal batekin edo batzuekin; zehazki, berariaz gazteriarentzako direnekin (lehenik andrazkoentzako, egun aktiboena baita), zertarako-eta borondate eraldatzailearen bidez Euskal Herriaren errealitatea ikusarazteko eta erakusteko.

Baina ez Internet bakarrik. Prozesuak aitzina egin ahala, pentsa daiteke aldizkari bat sortzeaz, paperezko edizio batekin eta beste bat, digitalarekin.

Pertsonen prestakuntza eginkizun behinentarikoak da; hartarako, behar dira eratu-osatu estudioak egiteko taldeak, ikerketak egiteko taldeak, tailerrak eta mintegiak. Horiez gain, behar-beharrezko dira norbanakoaren ahalegina, irakurketak eta gogoetak, zeren nornabakoaren konpromisoa baita funtsezko, erabakigarri. Euskal herria libre izanen, baldin eta behar beste pertsonak (euren kabuzko konbentzimenduz) eurenez erabakiten badute eze -irabzpidetekin oro largaturik- laneanahaleginez eta zerbitzuko jardungo dutela emantzipazioaren amorearren.

Ondokoek oraindik gaur egun dituzten agerpenez kontu egin behar da: euskal gizarteko oinarritzako erakuntzak, batzarrea, komunala edo herri-jabegoa, baserria (etxe gisa ulertuta) eta auzolana, betiere historia eta politikaren arabera testuinguruan jarrita, eta hedabide guztietatik ezagutzera emateko. Agurainen, Zuzenbide Piriniarrari buruzko jardunaldian egon ginenok Nabarralderi proposamen komun bat gin beharko genioke, Nafarroako komunalari buruzko Jarduladi bat egiteko izango litzatekeena, non landuko liratekeen funtsezko erankuntza horren alderdi guztiak, historiaren zein etorkizunaren aldetik.

Nafarroako komunalari buruzko estudioez nik ezagutzen dudana, ene iritziz da erdipudikoa eta okerra. Izan ere, komunala bereiztu egiten dute batzarretik, eta hori harritzekoa. Erudito guztiek egiten dute hori, zeren ezikusia egiten baitiote "Komunalaren espirituari", zeina landua baitu Felipe Esquíroz-ek. Hala jokatuta, bideragarritasuna kentzen diote komunalari, eta horrez gain, isilarazi egiten dute azolana eta bazter uzten:

herriarrek kolektiboki eduki eta aprobetxatzen dituzten ondasunen gaineko muin gaizatasunezko eta anaitasunezkoa; horretan bada salbuespenik: Amparo Zubiri. Hala ere, beharko litzateke prestatu era bat, ahalik eta zabalena eta iritzi guztietako txostengileak bilduko lituzkeena. Jakina, txostenak argitara emango lirateke.

Euskal Herrriaren historia, herritarrena, lantzeko talde bat abiarazi beharko litzateke, batez ere gazteriarentzako bideoak produzitzeko, zeintzuk berariazko kanal batetik zabalduko liratekeen. Landu litezkeen gaiak, besteak beste, honako hauek dira: 1) bagauden bidea Nafarroan zehar Tarazonara (Zaragoza) artekoa; bideo bat, zeinetan Salviano de Marsella historiagilearen aipuak jasoko baitira, bera baita bide hura zabalarik eta egokienik deskribatu eta juzkatzen duena; 2) Latxagak "Euskal Herriko Kapadozia" izendatzen duena, edo Arabako Goi-Erdiaroko haitzetako monasterioak, 3) Najera-Pamplonako edo Nafarroako Erregeen Panteoia, zeina ez baita historia herrikoaren parte, baina bai balio estetiko handia duena eta edukaziorako baliagarri dena; 4) Sobrarbeko foruak, Ainsako (Huesca) foruen monumentutik hara... ; 5) baserria, badira kalitateko estudioak liburuetan, baina, betiere, behar da sakoneko arazoetara jo, eta segi eta iraun dezan, hausnarketarik egin; 6) ola zaharak, gerora alea ehoteko bolu bihurtu zirenak; egun ere haietako baten batzuk badira martxan helburu pedagogikoetarako; 7) karlismo herrikoa, Lizarrako museoa eta beste gertaleku batzuetan; esate baterako, Ameskoak, 8) Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra deritzan mendi-partzuergoa, Asunción Urzainqui-ren estudioetan oinarriturik, hura baita arbola tantai edo garrazten, haritz eta pagoen, ohian zabal eta "eerra", eta bai euskal komunalaren ale bikaina eta ingurumen aldetik esanguratsua; 9) Nafarroan, Napoleon I. aren aurkako gerraginak (1808-1814), oinarritzat hartuaz John L. Tone-en liburu bikaina, eta leku enblematioen zehar ibiliz eta herri baten heroikotasuna eta epika gogora ekarriaz, 10) Industrializatzea, oinarritzat hartuaz bai Elgoibarko Makina-Erraminaren museoa eta bai Miguel Ángel Barcenilla-ren liburu bikaina: "**La pequeña Manchester. Origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano. Erretería (1845-1905)**"; 11) Artaizko San Martin telplu erromanikoa, batzarre edo herrikotasunaren erromaniko agerpen galanta; Tuestako (Araba) tenplua, XIII. mendearen amaierakoa, banakoa dena bere kalitate estetikoarengatik, eta bai Gaztelako Alfontso X.aren politika zorigaiztokoaren aurkako panfleto harrizkoarengatik ere; 12) desindustrializazioaren ibilbidea Bilboko itsasadarreko ertzetan zehar doana, konparatuaz, esate baterako, 1965ean zegoen industria-sarea egun den basamortu industrilari; horrez gain, Gallartako meatzaldea eta Bilbo inguruetako herriak ere bisita daitezke; 13) Busgoko Epaiketa, 1970koa, Frankoren erregimen fazistaren aurkako herri-mobilizazioa den aldetik; 14) arbasoetatik datorren euskal herri-jakintzaren arabera berezko landara jatekoak, Daniel María Pérez Altamira gipuzkoar etnobotanikoaren ardurapean, izan ere, arlo horretan uretan egin baitu landa-lana; 15) Euskal Herria X. mendean: Alamanzor-en erasoaldiari Simancasen aitzari egin eta hura garaitzea, eta euskal batzarren milizien argi-ilunak; 16) Bizkaiko antolaketa

politiko-juridikoa, bere autugobernuko hiru mailekin, Goi-Erdiarotik gaur egunera arte; 17) euskal andrazkoen artean, ohiko ziren umeak hazteko pratika komunak, gaur egun eta historian, M. C. Basterretxea-ren aipatu libruan oinarriturik; 18) euskal sukaldaritzako usadioak errekueratzea, noiz-eta fastfood delakoa ezarri den garai egungoetan; halako janaria baita hedatu gura den neohizkutzak globala bezain toxiko eta galgarri; hortaz, behar-beharrezko da: funtsezko kultura-osagaia den euskal sukaldaritza sustatzea, hausnarketa bat eginda.

Helburua litzateke dibulgazio-materialak ekoiztea; zehazki, ikuskera eta estetika aldetik duin direnak -testu objektibo eta egiazkoekin-, gazteriarentzako direnak

Estudioa eta hausnarketa sustatu beharko dira; horien helburu delarik: herritarren artean errokatuz pertsona kualifikatuak eta prestatuak izatea, urte pare bat barru. Hartarako beharrezko da estudiorako mintegiak antolatzea, 8-12 orduko aurrez aurrekoarekin eta kontsultak egiteko hiru hilabeteko epedunak (kontsultak: telefonoz, eskutitez, emailez edo skypez)

Babesa eman beharko zaie honakoak landu-sortu nahi dituztenei: ideiak eta azterlanak, edo ikus-entzunezko materialak, euskaltasunari dagokionez funtsezkoak diren espresioari buruzkoak; batez ere, tradizioa eta iraultza konbinatzeko espirituarekin egiten badira.

Laburki esanda, atazak honako hauek dira: 1) ideia nagusi edo funtsezkoa produzitu eta finkatzea; 2) argudio partikularrak lantzea; 3) pertsonak prestatzea; 4) lantaldeak eratzea; 5) prestatutakoa herritarrei helaraztea; 6) beste batzuegan positiboa dena jaso eta etxeko egitea; 7) **Manifestua** Euskal Herri osora helaraztea eta zenbait hilabetez eztabaidatzea, zertarako-eta euskal mugimendu herritar eta iraultzaile bat sortzeko.

Behin **Manifestua** editatutakoan (behin betiko bertsioan), gogotik egin beharko da lan zabaldu eta uler dadin, bat datozen ekintza-eskaintzak eta ekarpenak jasoz, bat datozen sormenezko jardun autonomoak sustatuaz, argibide-eskabideei erantzunez eta egoki diren debateak eginez. Denboraldi baten zehar haren eragin sozialak egiaztatutakoan, beste estrategia bat formulatu beharko da.

2017-11-26